

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2019KO AZAROAREN 29A-411.ZENBAKIA

# KARKARA

NAJAT KAANACHE





**SUKALDARITZAREN  
GAILURREAN**



# GIPUZ

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN





# KARKARA 411

2019KO AZAROK 29A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
UTZITAKOIA

## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta  
*Garai berriei ongietorria emanez*
- 6 **Hitz tantak** Dorleta Agiriano Lai  
*Alazne Zabala*
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Joxemari  
Olasagasti  
*Munduari begirada*
- 10 **Gutunak**
- 13 **Herrian galdezka**
- 15 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Itulain  
*Leundaneko 1964ko bertso-saioko gitarra*
- 18 **30.urteurrena** Karkara 30 urte eta  
*hamaika bitxikeria*
- 20 **Elkarrizketa** Intza Unanue  
Arruabarrena  
*Najat Kaanache: Sukaldean hasi  
nintzenean jakin nuen zer zen bame  
sosegua. Najat Kaanache izatea  
loru nuen*
- 26 **Bazkide kluba**
- 27 **Akuiua hartuta** Rikardo Uzkudun  
*Alkandora berria jantzita*
- 29 **Erreportajea** Aiora Larrañaga  
Solaberrieta  
*Landa eremuko medikuntza,  
lanbidea ulertzeko beste modu bat*
- 34 **Moila bazterretik** Garbiñe  
Manterola  
*Hiztegia*
- 35 **Nire honetan** Intza Unanue  
Arruabarrena  
*Bizi*
- 37 **Ikasleak idazle** Zaragueta Herri  
Eskola
- 38 **Osasuna** Miren Albeniz  
*Elikadura kontzientea etxean hasten  
da*
- 39 **Euskara** Jabier Zabaleta  
*Azken luzea*
- 40 **Albiste laburrak**
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Agenda**
- 45 **Zerbitzuak**
- 46 **Hasi bertotan** Ainara Manterola

## KARKARA

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu z/g. 20730  
AZPEITIA  
943-83 15 27  
karkara@karkara.eus  
www.karkara.eus  
**Lehendakaria**  
Rikardo Uzkudun

### Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga  
Solaberrieta  
**Erredaktore taldea**  
Onintza Aiestaran  
Dorleta Agiriano Lai  
Onintza Lete Arrieta  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue Arruabarrena  
Rikardo Uzkudun

### Diseinu arduraduna

Ane Azkue  
**Publizitatea**  
Leire Martija  
**Ale honetako  
kolaboratzaileak**  
Ainara Manterola  
Garbiñe Manterola  
Jorge Aduna  
Iñaki Iturain

Rikardo Uzkudun  
Jakes Goikoetxea  
Eli Lasa  
Olatz Elustondo  
Miren Albeniz  
Jabier Zabaleta  
**Banatzaileak**  
Endika Ruiz (Orio)  
Manex Dorronsoro (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-346/90  
**ISSN:** 1132-1105  
**Tirada:** 3.450 ale



**TOKIKOM**



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**AIAKO**  
udala

**Xs** arkitektura [www.xsarkitektura.com](http://www.xsarkitektura.com)  
 herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak  
 eraikinen mantenua  
 errehabilitazioak  
 proiektuak  
 txostenak  
 ITE-ak  
 obrak



*argine*

emakume arropa - neurri bereziak  
 kinkiladenda - barruko arropa  
 %5eko deskontua  
 familia ugarien txartelarekin  
 Eusko Gudari, 9 - Orio - 943-13 48 89 • 

**Aristerrazu**  
**Jatetxea**

Andatza auzoa • AIA  
 943-83 45 21  
[www.aristerrazu jatetxea.com](http://www.aristerrazu jatetxea.com)



*edaritegia* **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2  
 ORIO  
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak



**arkaitz taberna**  
 ...ri o

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA


*Terraza ederrarekin  
 giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Pelotari, 5 • ORIO  
 943-83 00 34  
 AUTOEN MEKANIKA OROKORRA

**AUTO - LAN C. B.**



**azkue**

Olaskoegia z/g  
 AIA-ORIO  
 943-13 04 38



BODEGAS *Gailur*

01307 BAIÑOS DE EBRO  
 Tel./Fax 945 60 91 58  
[www.bodegasingailur.com](http://www.bodegasingailur.com)  
 Arabar Errioxa

**ZUDUGARAI**

*Colonia Txakolina*  
 DENOMINACION DE ORIGEN

Tel - 943-83 03 85 - Fax -a: 943-83 59 52  
[txakolizudugarai@euskainet.net](mailto:txakolizudugarai@euskainet.net) [www.txakolizudugarai.com](http://www.txakolizudugarai.com)




**azkue**   
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7  
 AIA-ORIO  
 943-83 51 86

Carmen eta Txomin  
 ARRAINDEGIAK

TXOMIN ARRAINDEGIA  
 Eusko Gudarien kalea, 44  
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA  
 Arizaga kalea  
 943-83 05 37



# Garai berriei ongietorria emanaz



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

**H**itzaurre hau egieko azaroan gertatutakoaren errebasoa egiten ari naiz, eta *aldaketa* hitza datorkit etengabe burura. Alde batetik, azken hilabeteetan erabat desberdina da herriaren itxura. Udazkena hasi zenetik, orain arte ezagutu dugun herria aldatzen ari denaren sentipena dut. Amonaren etxeko sukaldetik begiratu eta lursail hutsa ikusten dut alde batean, kofradia zaharra zegoen lekuan. Plazako balkoira ateraz gero berriz, obrek hartu dute ingurua, eta desagertu egin da beti hor egon den kioskoa.

Argi dut, aldaketak herriaren onerako izango direla, eta plaza ingurua oinezkoentzat egokitzeak, herrigunea biziberritzeko balioko duela, baina hala eta guztiz ere, nolabaiteko nostalgia sentitzen dut. Agian, aurtengo udan, plazan eta moila iguruan inoiz baino denbora gehiago pasa dudalako izango da, baina lehengo irudiak, sentipenak eta oihartzuna datozkit burura. Beharbada Zaharren Babeslekutik, udaletxetik edo aldatatik begiratzen duten gainontzeko oriotarrek ere, gauza bera sentituko dute, ez baita beti erraza izaten ba-batean datozen aldaketetara ohitzea.

Hirigintza arloan ez ezik, herriko kulturgintzan ere aldaketa gertatu da azaroan, gaurtik aurrera KARKARA aldizkariak formatu berria izango baitu. Zertxobait txikiagoa da, diseinu modernoagoa du eta kolorez jantzia dator goitik-behera. Askorentzat aspaldi egin beharreko aldaketa izan arren, badakit hasieran ez dela denen gustukoa izango. Normala da, ezustean datozen aldaketa guztiekin gertatzen da gauza bera-eta. Hala ere, aldizkari soila baino zerbait gehiago izaten jarraitzen du KARKARAK aiarrontzat eta oriotarontzat. Karkara iritsi zain egoten dira herritar asko, eta zenbaitek euskaraz irakurtzen duten argitalpen bakarra da. Irudi aldaketarekin ez nuke xarma hori galtzerik nahi, argi izan behar baitugu Karkarak Aiako eta Orioko herritar guztien aldizkaria izaten jarraitzen duela. Duela 30 urte sortu zutenetik, kazetari mordoak lan egin dugu herriko aldizkarian eta beste hainbeste boluntario aritu dira musutruk lanean. Aldizkari honetan banakotasunek ez dute tarterik izan inoiz, denok sentitu baitugu herritar guztiena den proiektu kolektibo bateko kide garela.

Aldaketek eraldatzen dute gizarte, baina batzuetan ez dira ongietorriak izaten, atzean zerbait uztea dakartelako. Onartzea kosta egiten bada ere, hausnarketa baten ondoren, kontzienteki hartutakoak direnean, aberasgarriak dira gehienetan. Hala, ongietorriak izan daitezela azken hilabeteetako aldaketek abiatuko dituzten garai berriak. ■

**ITXURA BERRIA BADU  
ERE, KARKARAK AIAKO  
ETA ORIOKO HERRITAR  
GUZTIEN ALDIZKARIA  
IZATEN JARRAITZEN DU**

# Alazne Zabala

---

**TESTUA ETA ARGAZKIA:** DORLETA AGIRIANO LAI

Isilpekoa bezain agerikoa den ogibidea du Alazne Zabalak (Orio, 1997). Beilatoki batean jarduten du, eta besteak beste, hilotzak prestatzeaz arduratzen da. Hiru hilabete inguru darama ofizioan, eta argi du hildakoen artean lanean jarraituko duela; batez ere, ahaideei ekarpena egin asmoz. Heriotzaren eta bizitzaren hamaika aurpegi ezagutu ditu jada, eta ehorztetxeetako prozesuak barnebiltzen dituen argi-ilunen artean murgilduta segitzea du helburu.

## **Noiz sortu zitzaizun lanbidea ezagutzeko jakin-mina?**

Nire amona zendu zenean, bere gorpua ikustera joan nintzen beilatokira. Ez zen atsegina izan nola ikusi nuen, ikusi nuen azkeneko aldian. Orduan pentsatu nuen ez nuela nahi gauza bera gertatzea senide bat galdu duen beste inori, eta horretan lagundu nezakeela bururatu zitzaidan. Hala, ofizioa ikasteko gogoa piztu zitzaidan.

## **Nola ikasi duzu lanbidea?**

Beilatokian lan egiteko ikasketak non egin nitzakeen begiratu nuen, baina ez nuen ezer aurkitu, eta ile apainketa ikasi nuen. Gero, iragarki bati esker izan nuen beilatokian jardun ahal izateko ikasketen berri. Hasi nintzen, eta ordura arte ikasketetan trebea ez banintzen ere, dena gainditu nuen. Madrilen egin nituen praktikak, eta han manipulatu nuen gorpu bat aurreneko aldiz.

## **Nola oroitzen duzu une hura?**

Zorabiatu egin zen kide bat, eta ni ere bai ia-ia. Hasieran ez nuen hilotza ukitu eta eskuztatu nahi izaten, eta paranoiak izaten nituen. Gorpuek soinuak egiten zituztela iruditzen zitzaidan, eta pentsatzen hasten nintzen ea zer gertatuko litzatekeen benetan hilik egongo ez balira. Izan ere, gorpu batzuk hotzak egoten dira, baina ez beste batzuk. Ohitu arte, etengabeak dira beldurrak. Larderia handia sortzen du gorpuekin

eguneroko kontaktua izateak; baina gero, naturala bihurtzen da.

## **Nolakoa da egunerokotasuna zure lanbidean?**

Denetarik egiten dugu: etxebizitzetara edota ospitaletara joaten gara gorpuen bila; prestatu egiten ditugu; elizkizunetara edota ehorzketara eramane; loreak jarri...

## **Gogorra da?**

Badira une gogorak. Senideak lur jota daudenean, behea jo dezakezu. Normalki baino are zailagoak diren uneak ere badira; hildakoak gazteak direnean, edo heriotzak ikerketa judizialpean daudenean. Kasu horietan, heriotzaren arrazoia garbi ez dagoenetan, gorpua dagoen tokira bertaratzeko hots egiten dizute, baina ez dakizu zer topatuko duzun.

## **Zer da zure lanbidean gogoken duzuna?**

Hilotzaren bila joan eta prestatzea. Hor dago senideek onera edo txarrera hartuko dutenaren gakoa; nire ekarpena, betearazten nauena. Hildako bat prestatu eta ahaideek diotenean: "Itxura ona du, ematen du lo dagoela"... Orduan pozten naiz, eta orduan dakit ondo egin dudala lan. Prestatzen ditudan pertsonak hilda daude dagoeneko, eta ezin dut ezer egin horren aurrean. Senideengatik, ordea, egin dezaket zerbait.

## **Zein izaten da jendearen erreakzioa zure lanbidearen berri ematen diezunean?**

Ez da ohiko lanbidea, eta asko harritu egiten dira zertan jarduten duan esatean. Sarri ez didate sinesten, eta horretan lan egiteko, buruz indartsua naizela ere iradokitzen didate. Dena den, indartsua izatea baino, gakoa lanbidea gogoko izatea da. Ofizio askok dute gogorra bihurtzen duten zerbait, baina izaeraren arabera, gogorragoa egiten da bata edo bestea. Nik gustuko dut nire lana, eta ez nintzateke gai izango beste hainbat lanetan aritzeko. Bokazioa da behar den guztia. ■■■







# Munduari begirada

**ARGAZKIA:** JOXEMARI OLASAGASTI

**TESTUA:** AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Joxemari Olasagasti ezaguna da herrian arraunerako grina eta argazkilaritza uztartzen dituelako, baina arraun argazkiak ez ezik, bidaiatzea eta munduko txoko desberdinak ezagutzea ere maite du. 2016an Pilar San Sebastian emaztearekin Iranera egindako bidaiari, esaterako, hiru mila argazki inguru atera zituen. Bat aukeratzeko eskatuta, Isfahan hiriko Emakumeen Meskitako argazkia hautatu du Izpiak eta Hizkiak atalari hasiera emateko: “Argazki hau aukeratu dut, lekuaren edertasunak harrapatu ninduelako, eta munduan bizitzeko era desberdinak daudela erakusten duelako. Gainera, historiaz nuen ezjakintasuna agerian gelditu zitzaidan Iranera egindako bidaiari horrekin”.









## **Hauteskundeetan, ezin bozkatu**

### **ORIOITAR BAT**

Atzo, azaroak 10, arratsaldeko 18:00etan Orioko Ikastolarako bidea hartu genuen senarrak eta biok, botoa emateko. Han bozkatu beharra dugu biok. Erretiratua da nire senarra, eta ezin du oinez ibili.

Ikastolara autoan hurbildu ginenean, piboteak jarrita aurkitu genituen; beraz, ezin genuen autoarekin pasatu. Orain arte, beti ireki izan dute bidea, bozkatu behar dutenek autoan mugitzeko beharra badute gunera sartu ahal izateko. Oraingoan, baina, itxita zegoen bidea.

Laarriena izan zen, egoeraren berri izan arren, inork ez zigula irtenbiderik eman. Inork ez zigun lagundu piboteak kendu eta senarra eta biok botoa ematera joan ahal izateko irtenbide bat bilatzen. Ikuskatzaileari ere esan nion, txartel gorria atera niola gertatutakoagatik.

Azkenean, bizilagun batek, Divinak, bere etxetik jaitsi behar izan zuen, eta piboteak kentzen lagundu zidan. Hala, autoan pasatzea lortu genuen, eta botoa emateko aukera izan genuen.

## **82 URTE DITU DIVINAK, ETA EZ DAGO AZALDU BEHARRIK ZEIN BORONDATE ONA DUEN**

82 urte ditu Divinak, eta ez dago azaldu beharrik zein borondate ona duen. Behin eta berriz erakutsi du, eta oraingoan ere hala egin zuen. Eskerrak eman nahi dizkiot, eskainitako laguntzarengatik.

Bestetik, nire haserrea adierazi nahi dut. Gazteak ez dira ezertaz ohartzen, eta agintzen dutenak, are gutxiago. Herritarrenganako ardura gehiago izan behar dela uste dut, eta batez ere bozkatzeko eskubidea bezalako zerbait dagoenean jokoan, baita ezgaitasuna duen pertsona bat ere.

Ulertzen dut herriko obretan buru-belarri daudela orain, eta lanpetuta daudela, baina ez da nahikoa arrazoi.

Eskerrik asko, Divina..

### **Herritarrari erantzuna**

#### **HERRITAR BAT**

Karkara.eus webgunean herritar batek idatzitako gutuna irakurri dut eta erantzun egin nahi nioke, hauteskundearen igandean ikastolako pibotearekin gertatu zen kontua argitzeko. Ni ere han nengoen kontatzen zuena gertatu zenean.

Gutuna idatzi zuenak, kotxea Andre Mari Arantzazuko sarreran utzi zuen, sarrera bera oztopatuz, eta gizona besotik helduta ikastolako mahaian agertu zen haserre batean eta gaizkiesaka. Momentu horretan, Divinak pibotea atera zuen, eta berehala abisatu

zitzaion pasara oztopatzen ari zen bere kotxea pergolara sartu zezakeela gizonaren mesedetan.

Itxuraz, haserrearen ez zion horrelakorik egiten utzi. Iruditzen zait entzun ere ez zuela egiten, zuen haserrearekin.

Hurrengoan, denengatik gaizkiesaka hasi beharrean, hasieratik laguntza eskatzea onena, seguru jasoko duzula eta, baita gazteena ere!

### **Euskaraldiaren aurkezpena Aian**

#### **AIAKO EUSKARALDIAREN DINAMIZATZAILEA**

Dakizun bezala, iaz egin zen Euskal Herri osoan Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimena, helburu jakin batekin: jendearen hizkuntza-ohiturak aldatzea.

Jakingo duzu, beharbada, 2020an egingo dela Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta aldaketa nabarmen bat dakarrela: norbanakoek ez ezik, entitateek ere (erakunde, elkarte, kirol-talde...) neurriak hartuko dituzte beren eremuan hizkuntza-praktika berriak bultzatzeko. Ariketa 2021eko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo dugu, eta prestatzen hasi behar da.

Lehenbizi aurkezpen ireki batera gonbidatu nahi zaituztegu, datorren urteko berezitasunak azaldu eta Aian egin daitekeenaz hitz egiten hasteko: abenduaren 4an

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko, KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



izango da, 18:30ean, Aiako Kultur Etxean.

Besterik gabe, aurkezpenean elkar ikusiko dugulakoan, jaso gure agurrik beroena. Seguru gaude bigarren Euskaraldi hau ere arrakastatsua izango dela Aian eta, zuen guztion laguntzarekin, beste bultzada bat emango diogula euskararen erabilerari.

## Lau hilabete bidea konpontzeko eskatuz

### URDANETAKO AUZOTARRA

Urdaneta auzotik, Saberri baserrira doan bidea, lanak direla-eta, moztuta dago abuztutik. Bizilagun batek ebaki egin zuen, bere etxera ur hoditegia pasatzeko. Errepidea hondatuta geratu zen, eta konponduko zutela agindu arren, oraindik bere horretan jarraitzen du. Gainera, pasabidea bermatzeko egiturarik ere ez dute jarri, eta oso egoera arriskutsuan dago eremua. Nik egunean hirutan etxetik kalera joan-etorria egiteko bertatik pasa behar dut, eta azaroaren 15ean, etxera pasa ezinik geratu nintzen. Etsipenak bultzatuta, ondoko baserrira joan eta bertan

## ABUZTUAN BAINO OKERRAGO GAUDE, EGURALDI TXARRAK OKERTU EGITEN BAITU EGOERA



Urdanetako auzotik Saberri baserrira doan bidea. UTZITAKOA

zeuden ohol batzuk hartu nituen, zuloa babesteko.

Askotan hitz egin dut erakundeetako arduradunekin, eta laster konponduko dutela esaten didate. Hala ere, azaroa amaitzear dago, eta abuztuan baino okerrago gaude, eguraldi txarrak okertu egiten baitu egoera. Gaur egun horrela ibiltzea lotsagarria iruditzen zait, eta horregatik, Aiako Udalarari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diet, mesedez, konpondu dezatela lehenbailehen zuloa.

## Orioko parrokiaren oharra

### UNAI MANTEROLA

ORIOKO ETA AIAKO APAIZA

Sendotzako taldean parte hartzeko deialdia prest dugu: DBHko 1, 2, 3 eta 4. mailako neska-mutilak daude gonbidatuta parte hartzera. Izena emateko eguna abenduaren 3a izango da, iluntzeko 19:00etan, parrokiako saloian. ■■■

## JAIOBERRIAK

- **Jon Bergol Iriarte.** Orion, urriaren 15ean.
- **Nora Lertxundi Marti.** Orion, azaroaren 9an.
- **Jorge Elhadji Ndour Lopez.** Orion, azaroaren 11n.
- **Maddi Zumeta Garmendia.** Orion, azaroaren 14an.

## HILDAKOAK

- **Joaquin Redondo Gonzalez.** Orion, azaroaren 9an. 69 urte.
- **Maria Sarasua Seguroლა.** Orion, azaroaren 12an. 91 urte.
- **Rita Arostegi Moraza.** Orion, azaroaren 16an. 89 urte.
- **Maria Pilar Makazaga Arruabarrena.** Orion, azaroaren 17an. 75 urte.
- **Imanol Urkizu Mitxelena.** Orion, azaroaren 19an. 52 urte.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.eus](mailto:karkara@karkara.eus) edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



**Gale Bask S.L.**

**BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK**

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 behea (20810 Orio)  
Telf./Fax-a: 943-13 47 17  
Mugikorrek: 638 61 03 43 / 638 61 03 49  
galebask@hotmail.com



**fontana iturgintza**  
iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzeta
- Zoru erradiatzailea

Plaza Endaia, 1 · ORIO  
fontana-jul@hotmail.es  
www.fontaneria-fontana.com  
943-53 98 88 · 661 26 28 28

**KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA**



**GELATO**

OGI BERRI  
943-57 81 76  
Herriko enparantzan

Izozki naturalak Opilak

**Itzala**

Kartetan jokatzeko aproposa

Eusko Gudarien kalea, 25  
20810 ORIO



**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

iglesiascerrajereros@yahoo.es  
www.iglesiascerrajereros.com  
Erribera kalea, 14 · ORIO  
637 72 33 08

**ITZIAR KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23  
ORIO  
943-83 31 03



**INDO**

**Garraio frigorifikoa Nazionala eta Nazioartekoa**

generoa



garraioak



ibilbideak



kamarak



Ubegun industriagunea, 4  
AIA-ORIO  
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

**Izaskun Estankoa**

Tabakoa-Prentsa-Eskola materiala Opariak

Astelehetik ostiralera  
8:00-13:00 · 17:00-20:00  
Larunbatetan eta igandetan  
8:00-13:30

Eusko Gudari, 23 · 20810 Orio - 943-83 12 12



**Joseba AROZTEGIA - CARPINTERIA**

ATEAK  
ZOKALOAK  
ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
ARROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427  
josebaarotza@gmail.com

# Zer iruditzen zaizu Karkarak udalbatzarrak bideoz hartzea?



## MARI IXABEL IDIGORAS

Ondo iruditzen zait osoko bilkurak bideoan grabatzea eta jasotzea. Normalean, alfertuta egoten gara udaletxera zuzenean ikustera joateko, zaila izaten da. Ni, esaterako, ez naiz inoiz izan. Beraz, positiboa dela uste dut bilera horiek nolabait eskuragarri izatea eta guztiok jakitea zertaz hitz egiten den bertan; zertaz hitz egiten duten udalbatzako kideek. Pertsonalki, ez dut jakiten zein gai lantzen eta landuko dituzten ere. Askotan, bilkurak noiz izaten diren ere ez gara ohartzen; nahiz eta, interesa izanez gero, mugitu eta galdetu egin beharko genukeen.



## KANDIDO ESOAIN

Beharrezkoa iruditzen zitzaidan udalbatzarrak grabatzea eta herritarrok ikusi ahal izatea. Oroitzen dudanez, aurreko agintaldian, EH Bilduk proposatu zuen osoko bilkurak grabatzea eta ematea, baina EAJk ez zuen onartu. Orain proposamena onartu denez, herritar guztiak, nahi izanez gero, jakin dezakete zehazki zer gertatzen den udaletxe barruan. Egia da jendeari ikaragarri kostatzen zaiola osoko bilkuretara bertaratzea, ez bada auzi bereziren bat lantzen denean. Beraz, ez dira jabetzen udalbatzarrean pasatzen denaz, eta grabatzeak, lagundu dezake hori aldatzen.



## AIZPEA ESNAOLA

Begi onez ikusi dut aurrerantzean Orioko osoko bilkurak bideoz grabatzea. Egia esan, oraindik ez dut emanaldi bat bera ere ikusi; normalean, gero irakurtzen ditut horren inguruko albisteak KARKARA-ren webgunean. Dena den, usten dut herritarrentzat zuzenagoa dela bilkuraren bideoa ikustea. Aukera ematen du hitz egiten diren gai guztiak ezagutzeko; baita zinegotzi guztiak esandakoa ere. Izan ere, askotan, albisteetan, ideia batzuk baino ez dira jasotzen, eta bideo grabazioak ikuspegi osatuagoa eskaini diezaguke oriotarroi. ■





## LAGUNDU PLASTIKOAK MURRIZTEN

- 1- Zuzenean otarrean sartu produktua
- 2- Behar baduzu, eskatu eta eraman etxera gure poltsa berrerabilgarriak
- 3- Hurrengoan, etxetik ekar ditzakezu poltsak

**GOZATEGI**  
FRUTADENDA



**Kolon Txiki**  
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4  
ORIO  
Tel.: 943-83 00 44



**kutixi**  
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



## KATU HORIA

albaritaritza klinika

ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia:  
668891129



## Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84  
itzilizaso@gmail.com



## KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com  
665 70 33 47



## MARIJO

ILEAPAINDEGIA  
Eusko Gudari, 8 behe · ORIO  
943-13 47 29



## libe

dietetika  
elikadura aholkularitza

943-53 64 94  
697 23 86 56

Eusko gudariak, 35 · ORIO  
(sarrera Arrantzale kaletik)

libegarmendia@gmail.com  
www.libegarmendia.com


Ordo elikatuz Bizi



## MENDIZABAL AROZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxeri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO  
943-83 11 75 · 645 70 84 91  
medi@arotzgi.net



## niko taberna

Karta  
Pintxo tradizionalak  
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orío · Egin erreserba 943-53 61 27



## Oreka

fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



# Leundanekeo 1964ko bertso-saioko gitarra



**IÑAKI ITURAIN**

i-iturain@euskadi.eus

ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAINEN ARTXIBOA

San Nikolas gauean bertso saioa izango da aurten ere Orioko kiroldegian, 2004tik hona urtero egiten den bezala. Lehen ere izaten ziren bertsolariak neguko festetan; baina orduan, kiroldegirik ezean, Cine Leundan hartzen zuten aterpe. 1964an bi bertso-saio izan ziren zinean. Ekainaren 20koa, luistarrek antolatuta, Benito Brit oriotarrak gidatu zuen. San Nikolas bezperan, abenduaren 5ean, Basarri, Uztapide, Joxe Lizaso eta Manuel Lasarte aritu ziren bertsoan, garaiko onenak, Jose Mari Iriondo gai-jartzaile zutela. Herriko otxoteak osatu zuen, kantari, festetako jaialdia.

Iriondok bertsolariiei emandako gaien artean, bat zelebre samarra gertatu zen. Hona, Jose Mariren aurkezpen-hitzak (orduko idazkeran ekarriak): “Lau bertsolariantzat gai bat: Lizaso soinu-jolea dugu; Uztapide, pandero jotzailea; Basarri, gaur badakizue herriz herri soinua eta panderoa ezkututzen ari dira, eta txistua gehiago, eta horien ordeztalde batzuk datoz, ez dakit zer konjuntu eta badakit zer konjuntu, dena dela horietan gitarra luzeekin musikaren arrastorik ez duten asko azaltzen dira, Basarri horietakoa degu: gitarrarekin orkestina baten osatzailea; eta Lasarte, berriz, orkestinako abeslaria, badakizute txima luzeekin azaltzen diran horietako bat. Txandaka, burrukan egin bezate bi bitara”.

Gai-jartzaileak horretara bideratuta, honelako arrazoiak eman zituzten bertsolariak: “Gure lur honetako zertako gitarra?”, Uztapidek. “Gitarra hainakorik ez da mundu osoan, Iparragirrek ere hori jotzen zuan”, Basarrik. “Iparragirren kontuk dizkigu atera, zu ere joaten al zera Santander aldera?”, Lizasok. “Soinu klase horrekin bada mila neke, ibili beharko dute herri hauetan merke, gutxi joango zaizkie soinu horren eske, Andaluzia aldera abitu litezke”, Uztapidek. “Hontarako gitarra zuk dezu alperrik, hemen hoi jotzen dute zakurrek bakarrik”, Lasartek. Euskaldunok gitarra erabiltzearen kontra agertu ziren bertsolari gehienak.

Bertso-saio hura entzuten zeudenen artean egongo zen noski Benito Lertxundi, orduan 22 urteko gaztea; Benitok otxote hartan kantatzen baitzuen. Zer pentsatu ote zuen gitarra Euskal Herrira ekartzeaz bertso-saio hartan esan zituztenak entzunda?

2017an, Alberto Irazuk *Rocka puntua* liburuan gogoeta sakona egin zuen bertsoaren mundu tradizionalak eta rockarenak izan zuten talkaren gainean. Orioko 1964ko saioan oinarrituta, garai hartan munduan zabaltzen ari ziren aldaketa-haizeak aztertu zituen: protestak, Vietnamgo gerragatik; iraultzak, Kuba eta Argelian...; Euskal Herrian, ETA



Herriko otxote jendetsua, zuzendari Martin Lizaso zutela.



Haika, Orioko aurreneko rock taldea. Ezkerrean, Txema Moran, eta eskuinean, Juanjo Iparragirre zena.

sortu berria, artean atentaturik egin gabe; frankismoa gainbeheran, azken fasean sartuta; euskarak adierazpide gutxi, debekatuta ia leku denetan; askatasunaren aldarrikapena, bazter guztietan; iraultza, alor askotan: politika,

ideologia, musika, sexua, harremanak, janzkera... Alberto Irazuren ustez, sinestezina dirudi, baina duela 50 urte gitarra arrotza zen jende askorentzat Euskal Herrian, tomatea gordinik jatea bezain arraroa zen sokazko musika-

tresna; izan ere, gitarrak bekatua zekarren.

Munduak iraultza-giroa bizi zuen 60ko hamarkadan. 1968ko urtea ikur bilakatu zen. Urte hartako maiatzean gertatu zen Parisko kaleetan, geroztik "Frantses Maiatza" deitu izan den mugimendua; hasiera batean, unibertsitateko ikasleen protesta izan zen, autoritatearen aurkako adierazpen kontrakulturala; gero, langileak batu zitzaizkionean, kutsu sozial eta politikoa hartu zuen.

Garai hartan jaio ziren munduan zehar gizateriaren historia irauli duten hainbat mugimendu: Vietnamgo gerraren kontrako intsumisioa, bakezaletasuna, hippyak, rocka, feminismoa, sexu askapena...

Irazuren ustez, 60ko hamarkadan, goitik behera aldatzen ari zen gizartean gitarra ikur bat zen, eta



Bertsotan plazan, Manuel Lasarte eta Uztapide. Atzean, Joakin Onaindia eta Antonio Rufino.

aldaketaren motorretako bat, musika berriak ekarritako mugimendu ideologiko eta estetikoaren ardatza. Protesta-kantuaren garaia zen, hedonismoa beldurrik gabe aldarrikatzen zuen pop kulturarena; eta bertsolaritza ez zebilen sinkronizatuta. Baserria, Jaungoikoa eta Lege Zaharra, batetik; eta gazteek gaietan eta formetan zekarten berrikuntza, bestetik. Txokea gertatu zen. Bertsolariak garaiko gai berrietatik kanpo zebiltzan, eta kantariak bete zuten hutsunea.

Euskal Herrian joera izan ohi da horrelako eztabaidetarako. Hamarraldi hartan bertan, 60koan, horixe gertatu zen euskara batuarekin, eta hark berekin zekarkigun *h* letrarekin. Gizartearen sektore bat oso modu gordinean agertu zen euskara batuaren eta *h*-aren kontra. Orduan egon ziren Oteizaren Arantzazuko 14 apostoluak errepede bazterrean botata 14 urtez, eliza katolikoaren agintariak basilikan jartzea debekatuta; Oteizaren ideia estetikoak ez ziren egokiak Elizarentzat elizarako. Orion arraun olinpikoarekin gertatu zen hori.

## MUNDUAK IRAULTZA- GIROA BIZI ZUEN 60KO HAMARKADAN

Orduan Oriora ekarri berria zen arraun mobilak zekartzan berrikuntzen kontra agertu zen herriaren parte kontserbadore bat, gitarraren eta apostoluen kasuan bezalaxe.

Baina, debekuak debeku eta iritziak iritzi, Benito handik hiru urtera (1967an) gitarra jotzen agertu zen euskal plazan, eta huraxe izan du geroztik bidelagun 52 urtean. Oteizaren apostoluak, 14 urteko bide bazterreko loaldiaren ondoren, halako batean iritsi ziren Arantzazuko basilikako frisora (1969an) eta geroztik euskal kulturaren ikurretako bat bilakatu dira. 1960ko urte haietan sortu berria zen Orioko arraun klub olinpikoak arraunketa guztia irauli zuen. Orioko arraunaren historiak izan duen aldi gozoenetakoa bizi izan zuen orduan: 1968ko Oxford-Orio estropada jendetsu eta arrakastatsua, 1970etik 1975era bitarteko Kontxako bost banderak...

1960ko hamarraldiaren bukaeran, bakoitzak bere alorrean, iraultza ekarri zuten hirurek: Benitok, Oteizak eta arraun klubak. Orioko herriaren izen onari oihartzun handia ekarri dioten ikur bihurtu ziren; zergatik eta, jakin zutelako, orduko kontrako giroari aurre eginez, azalean eta formetan berrikuntzak egiten, sakonekoari eusteko, asmatu zutelako betiko ura iturri berritik ekartzen.

Eta 1972an, aurreneko rock taldea osatu zuten herriko Goiko Kalean hiru oriotar gaztek, Haika izeneko *konjuntua*: Juanjo Iparragirre zenak, Txema Moranek eta Jabi Rodrigok, Josu Izeta zarauztarrarekin batera, “gitarra eta txima luzeekin”. Lehenago, beste Iparragirre batek, Jose Mari urretxuarrak kantu eder askoak sortu eta zabaldu zituen Euskal Herrian herriz herri. “Gitarra zahartxo bat det niretzat laguna, egun batean pobre beste batez jauna, honela ibiltzen da artista euskalduna...”. Gitarra lagun zuela, sortu zuen Iparragirrek 1853an euskal kanturik ederrenetakoa eta seguru asko unibertsalena: Gernikako Arbola. ■■■



Benito Lertxundi, gazte-gazte, gitarra jotzen hasi berritan.

# Karkara 30 urte eta hamaika bitxikeria

KARKARAK 30 urte bete ditu. Ez da nolanhiko urteurrena. Ez dira asko izango 30 urtetan fin-fin hilero zenbakia argitaratu duten aldizkariak. Hori posible izan dadin, kazetari eta boluntario mordoak lan egin dute KARKARAn eta horien bizipenak jaso nahi izan ditugu txoko honetan.

## Guztiok dugu zerbait kontatzeko

Karrera bukatu berrikan iritsi nintzen KARKARA-ko familiara. Eta denetarik ikasi nuen: maketatzeko zenbait programa erabiltzen, parekidetasunari arreta jartzen (argazkietan, elkarrizketarako herritarrak aukeratzerakoan...), bandoen artean oreka bilatzen (ikastola eta eskola publikoa, alderdi politiko bat eta bestea, arrauna eta gainerako kirolak etab.)...

Herritar interesgarri asko ere ezagutu nuen, eta konturatu nintzen guztiok dugula kontu erakargarriren bat kontatzeko. Baina tokatu zitzaidan kalabazak jasotzea ere, eta badut bat bereziki gogoan: Dikeko emakume batena.

Bere etxean egin genuen hitzordua, eta adeitsu zabaldu zidan atea. Galdetu zidan Orion zein familiatakoa nintzen, zeinen alaba... eta behin



Olatz Elustondo.

konfiantza giroan murgilduta, erakutsi zidan etxe osoa: armairuak banan-banan, oheak maindirez maindire eta mantaz manta nola zeuzkan jantzita... baina denboran aurrera damutu egin zitzaion nonbait elkarrizketa egitea. Esan zidan barkatzeko, baina zenbait herritarri ez ziola gustu hori eman nahi, eta ordubeteko hitz-jolasa eta gero, egiteko

txokolate tableta bat oparitu eta bidali ninduen bueltan.

Gogoan dut, baita ere, KARKARA Udalak diruz laguntzen zuela eta gaztelaniaz ere argitaratu behar zela kexatu zitzaidan herritarra. Herritar euskalduna, portzierto. Kosta egiten zitzaion euskaraz irakurtzea, eta amorrarazita zegoen. Ez jakin nonbait KARKARA euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko sortu zela! Eta jabetu nintzen herri aldizkariekin bete-betean asmatu dugula euskaldunok. Beste hizkuntzetan kompetentziarik ez duen produktu bat sortu dugulako, euskaraz, geure-geurea, autentikoa...

Ai ama! gaur egun atzera begiratu eta zenbat pozten naizen proiektu polit honen parte izana!



## Aiako atalaiatik

Urte hauetan Karkarako kolaboratzaile bezala anekdota ugari izan dira. Hainbeste denbora pasa denik ere! Ni hasi nintzanean herriko berriak biltzen genituen (hasiera batean, Idoia Zarautzekin batera) eta norbait elkarrizketatzen genuen Aiako lau orriak bete ahal izateko. Elkarrizketa grabatu ondoren denbora pilo bat ematen genuen hori paperera pasatzeko, hitz egindako guztia modu txukun batean islatu nahian. Dena eskuz egiten zen (interneten arrastorik ez) eta protagonistei ateratako argazkiak errebelatzeko egun batzuk behar izaten ziren; beraz, beti



Eli Lasa.

denboraren kontra ibiltzen ginen inprentara eramateko. Buzoi bat zegoen Orioko udaletxeko atzekaldean eta gehienetan asteburuan joaten nintzen egindako lana bertan uztera. Eta behin inuzente batek lapurtu egin zuen nik

utzitakoa; KARKARAtik deitu zidatenean ezer ez zegoela esanez, hura larritasuna: artikuloren kopiarik ez (eskuz egin zegoen) eta argazkirik ere ez! Eta inprentara eraman behar egun berean. Ez dakit nola, baina nolabaite konpondu nuen.

Beste atal batetaz ere arduratzen nintzen: herritarrei iritzi artikulua eskatzeaz. Jende askok hartu zuen parte eta une hau aprobetxatu nahi dut eskerrak emateko denei, baina bereziki Jose Mari Lertxundi eta Nikolas Zendoia, eskatu ere egin gabe behin baino gehiagotan oparitu zizkidatelako. Eta zein ondo etorri zitzaizkidan!

## Nire fakultatea

KARKARAREN zenbaki zaharretan arakatzeko ibilita ere, ez da anekdotarik berri. Hala ere, ariketa interesgarria da gaurkotasanak irautitako orrietan aurrera eta atzera ibiltzea, garai batean egindako lanak, protagonistak, gaiak... ikusteko. 1996ko otsailera joan behar izan dut nik idatzitako lehen testuak aurkitzeko: 'Seven' filmaren kritika eta Joseba Agirre futbolari elkarrizketa. Handik aurrerako zenbakietan, paperera joan beharrik gabe gordeta geratu zaizkidan bi gertaera: bata, Ibon Arrizabalaga lagunari egindako elkarrizketa, biluzi eta guzti; bestea, 1936ko gerrari buruzko erreportajea egitera



Jakes Goikoetxea.

atera eta solaskide batzuren malkoak eta ahots dardartiak.

Kazetaritza ikasten ari nintzen EHUan, baina KARKARA izan zen nire fakultatea. Orduko beteranoak eta gazteak, irakasle. Uste dut aldizkariaren sortzaile, buru eta

bihotz izan direnei eskertu behar zaiela urteotan guztietan gazteekin lan egiteko eta gazteei irakasteko izan duten gogoia eta pazientzia. Ez dira 'kazetaritza irakasle' soilik izan.

KARKARAN ikasitako gauza askotatik, bat nabarmenduko nuke: ez dagoela kazetaritza txikirik. Kazetaritza kazetaritza da herri aldizkari batean eta egunkari nazional batean. Eta tokiko kazetaritzak sekulako abantaila du gainerakoekiko: bertatik bertara ditu informazio iturriak. Gertuegi ere bai sarritan. Goizeko ordu txikietan, tabernen kanpoan, azaltzen zitzaizkidan irakurle kritikoak. Ez zen seinale txarra.

# "Sukaldean hasi nintzenean jakin nuen zer zen barne sosegua. Najat Kaanache izatea lortu nuen"

## NAJAT KANACHE SUKALDARIA

Munduan txoko batetik bestera ibili da Kaanache (Orio, 1977). Egun, Marokon dihardu lanean, Fez hiriko Medinan duen Nur jatetxean. 2016an ireki zuenetik, nazioarte mailako hainbat sari jaso ditu; besteak beste, Afrikako jatetxerik onena eta mundu mailako marokoar jatetxerik onena izendatu dute.

Testua: **Intza Unanue Arruabarrena**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

**Z**er oroitzen datorkizu burura Orion pasatako urteez? Oraintxe bertan mila oroitzen polit etortzen zaizkit gogora. Ostiraletan, itsasontziak portura iristen ziren momentuaz gogoratzen naiz. Berdela opari ematen ziguten arrantzaleek, eta amak bizilagunei kus-kusa prestatzen zien. Gogoan dut Bodegon Joxe Mari jatetxeko Paxitak eman zidala nire lehenengo bainilazko izozkia. Horrez gain, Don Andres apaiza eta Esnal familia ere ezin ditut ahaztu. Oriokoez gain, Aiako oroitzenak ere baditut. Izan ere, gure lehen etxea Santio Auzoan zegoen. Frontoian pilotan gustura ibiltzen ginela gogoratzen dut. Txerriboda ere gogoan dut, urtero egiten baitzen.

Orion eta Aian pasatako bizipen guztiak positiboak dira, bere garaian negatiboak izan ziren gauza oro denborarekin oroitzen polit bilakatu dudalako. Adibidez, ni euskalduna eta marokoarra naizenez, eskolan *mora* deitzen zidaten, baina oroitzen on modura gogoratzen dut, basora joan eta masustak (*mora*-k) biltzen nituela, kar-kar. Eskolako ingeleseko irakasleak

esaten zidan inoiz ez nuela hizkuntza ikasiko, eta orain, ingeleseko tituluak ditut eta zazpi hizkuntza hitz egiten ditut.

**Herritar askok aktore gisa aritu zinen garaia egatik ezagutzen zaitu. Nola gogoratzen duzu *Goenkale telesaila*?**

Orain helduagoa naiz eta, ustez, jakintsuagoa. Asko bidaiatu dut; egun batean lurralde batean nago eta, hurrengoan, beste kontinente batean. Niretzat pauso handia izan da ohartzea bidaiatzeak duen garrantziaz. Horregatik, gustura hartuko nieke kargu garai hartako *Goenkale*-ko gidoilariei. Bihotzez diot: nik gorroto nuen pertsonaia bat sortu zuten. Naizenaren guztiz bestelakoa zen Shamira, eta ez zen xamurra izan niretzat paper hura egitea. Goizaldean esnatzen nintzen, Shamirarekin ametsetan. Baina egin beharra nuen, nire lanbidea zen, antzerkia ikasi nuen eta une hartan hori zen adierazteko erabiltzen nuen bidea. Horrelakoa da bizitza; gainditu beharreko erronkak jartzen dizkizu aurrean.

Hala ere, denborarekin konturatu naiz gidoilariei barkatu egin behar diedala, ez







Najat Kaanachek sortutako platera.

baitzekiten nolakoa izan zitekeen Shamira bezalako pertsonaia bat. Horrez gain, gaur egun erlijio bati lotutako pertsonaia bat edo etorkina den paper bat egin beharko banu, gidoilariekin landuko nuke eta aurrez mundutik buelta bat emateko eskatuko nieke. Izan ere, ezin ditugu pertsonak hasieratik aurreiritzien arabera sailkatu. Dena dela, esperientzia hartatik asko ikasi nuen, eta konturatu nintzen zer zen egin nahi ez nuena. Nire askatasuna aurkitu nahi nuen, eta barruan nuena ateratzeko bide bat topatu. Eta hara, Herbehereetan aurkitu nuen hori, sukaldean lanean. Sukaldean hasi nintzenez jakin nuen zer zen bakean sentitzea. Najat Kaanache izatea lortu nuen, etorkinen alaba. Beti etorkina izango naiz, baina oriotarra naizela jakinda.

#### **Nondik datorkizu sukalderako grina?**

Hazi eta hezi naizen lekuak eman dit sukalderako pasioa. Janaria lehentasuna den lurralde batean bizi izan naiz beti. Orion, esaterako, sekulakoa da sukaldeak eta otorduek duten garrantzia. Gogoan dut, etxera iristen nintzenez, beti nituela lehenengo eta bigarren platerak, eta amaitzeko

postrea. Gero, kalera irteten nintzen kafea hartzera, eta asteburuetan, kuadrillarekin ogitarteko bat edo pintxo batzuk jatera irtetea zen planik onena.

Herbehereetan pintxoak egiten hasi nintzen, eta bide hori jarraituz murgildu nintzen sukaldearen munduan. Izan ere, egunerokotasuneko ohiturek baldintzatzen dute gure etorkizuna. Zortekoa sentitzen naiz, sukaldeak lehentasuna duen inguru batean jaio eta hezi nintzelako. Gerora, pixkanaka, haurra nintzeneko zaporeak gehitu dizkiot nire ezagutzari, baita nire kultura eta printzipioak ere. Urte asko kostatu zait ni nor naizen jakitea, baina sukaldeari esker lortu dut ni neu izateko bideari heltzea.

#### **Herbehereetan hasi zenuen, beraz, zure ibilbide profesionala.**

Egun batean, autobusa hartu eta Herbehereetara alde egin nuen, lagun baten etxera. Bere pisua utzi zidan, eta bera Donostiara etorri zen. Iritsi orduko, sekulako lekua zela konturatu nintzen, harrigarria zen dena. Garai hartan, bertako hizkuntza ez nuen hitz egiten eta ez nuen lanik, baina, bueltan-bueltan, nire etxe inguruan zegoen





Nur jatetxea.

**"HAZI ETA HEZI NAIZEN LEKUAK EMAN DIT SUKALDERAKO PASIOA"**

**"49 GUTUN IDATZI NITUEN MUNDUKO JATETXE ONENETARA, ETA 27K ERANTZUN ZIDATEN"**

**"EGUN BATZUETAN EZ NUEN JAKITEN NON LO EGINGO NUEN EDO BAZKALTZERIK IZANGO OTE NUEN"**

arte galeria baterako pintxoak egiten eta saltzen hasi nintzen. Zerotik hasi nintzen.

**Gogorra izan al da aitorpen profesionala lortzeko egin duzun bidea?**

Ezetz esango nuke. Lan asko egin dut, eta ordu ikaragarri sartu ditut, baina jardun naizen lekuan jardun naizela ere, asko errespetatu naute eta naizen bezala onartu. Nire jomuga ezagutza ingurukoekin partekatzea da orain, horregatik nabil bigarren liburu batean lanean. Orain arte egindako biderei esker, nire egunerokotasunaz oso harro nago. Asko sufritzen dut, baina bidea egitearen alderdi bat da hori.

**Emakumea izateagatik oztopo gehiago izan dituzula uste al duzu?**

Sukaldean egiten duzunean sukaldaria zara. Ama izan nuen lehen irakaslea, baina gainontzean, sukaldean erakutsi didaten denak gizonezko profesionalak izan dira. Beraz, ezin dut esan emakumea izateagatik oztopoak jarri dizkidatenik. Lan egin dudan eremuetan behintzat, Estatu Batuetan, Danimarkan, Espainian edota Marokon profesional bat gehiago sentiarazi naute beti. Hala, sukaldarien jakatxoa gainean dudanean profesionala naiz, lanean murgiltzen naiz eta nire onena ematen diot jankide bakoitzari.

**Munduko jatetxe onenetan egin duzu lan. Nola sortu zitzaizun aukera?**

Egun batean lapsus moduko bat izan nuen. 49 gutun idatzi nituen munduko jatetxe onenetara, eta 27k erantzun zidaten. Multzo horretatik zein jatetxetara joan nahi nuen erabaki nuen, eta horrela hasi nuen abentura berria. Urte asko pasa ditut doan lanean. Pezeta bat ere ez didate ordaindu, baina ez zait axola izan, nirekin beren ezagutza partekatu baitute. Ulertzen lagundu didate, amesten, aurrera ateratzen, hazten, porrot egiten... denetarik. Bizitzak jakinduria asko eskaini dit leku horietan. Berriz atzera itzuli beharko banu ere, bide berbera jarraituko nukeela uste dut. Egun batzuetan ez nuen jakiten non lo egingo nuen edo bazkaltzerik izango ote nuen. Dolar bakarra izaten nuen eguna pasatzeko; patata bat erosi eta zopa egiten nuen. Hala ere, bizitza pasibo bat ez dudanez, egunero nengoen energiaz eta bizitasunez beteta. 24 ordutan barre egiten dut, negar, oihu... gizakia naiz. Pertsona perfektua ez da existitzen, eta urte haiek orain naizena izaten lagundu didate.

**Jatetxe horietan ikasitakoa erabakigarria izan da zure proiektu propioa eratzeko?**



Najat Kaanachek sortutako platera, *Scallop* izeneko.

Jatetxe bakoitzean diruz ordaindu ezin den zerbait desberdina ikasi nuen. Sukaldean egiten ikastez gain, bizitzeko tresnak lortu nituen. Sukaldea gizakiak duen gauzarik garrantzitsuen da. Egia da, denborarekin komertzializatu egin dela, eta ahaztu egin zaigula zer garen, baina azken urteetan ikasi dudana guztia partekatu, sentitu eta oparitu egin nahi dut janariaren bitartez. Gainera, nire publikoak ez badit uzten naizen bezala izaten, ez zaizkit interesatzen. Naizen bezala izaten jarraituko dut.

**Hortaz, garrantzitsua da zuretzat esentzia propioa ez galtzea.**

Askotan pentsatzen dut horretaz, eta uste dut, 70 urte ditudanean, ni neu izango naizela nire heroi propioa, egin behar zuena egin dudala sentitzen dudanean. Gaur egun, jada, irabazlea sentitzen naiz. Jendeak atea itxi didanean, unibertsoak zerbait harrigarriagoa oparitu dit. Horregatik pentsatzen dut beti positiboki; pertsona ezkorra banintz, ezingo nuke onik atera bizitzak jartzen dizkidan bataila guztietatik.

**Hainbat lurralde eta kontinentetan lan egin duzu, eta orain, zure familiararen jaioterrira itzuli zara, Fez hirira (Marokora).**

Hori da, hain zuzen ere, irabazle sentitzen naizen arrazoietakoa bat. Ez Afrikan nagoelako, nire historia kontatzeko kontinente ezin hobean nagoela sentitzen dudalako baizik. Guk historia zati bat dugu, denekin konpartitu nahi duguna, eta kontakizun hori jatetxearen bitartez egiten dugu. Hemen egotea oparia da niretzat, egunero ikasten baitut zerbait berria.

**Zure ibilbide profesionalak aurrera egin ahala, asko eboluzionatu al da zure sukaldaritzan?**

Momentu garrantzitsu batean hasi zen eboluzionatzen nire sukaldaritzan, munduari Marokoko gastronomia kus-kusa baino askoz gehiago dela esaten hasi nintzenean. Marokok ondo harrigarriak ditu, itsaso aparta, mahasti ederrak, fruta eta olio bikainak. Ez diogu inori inbidiarik zor, hemendik mundu osora irteten baitira produktuak. Nire jatetxean ez dut kus-kus eta taginik prestatzen, kluxe bat da hori. Guk bertako produktuekin egiten dugu lan, eta batetik bestera ibiltzen naiz produktu eta ekoizle berrien bila, horiek baitira ondoak, tomateak, urazak edo piperrak lantzen dituztenak. Sukaldariok lortzen dugu ospea, baina nekazari horiek sukaldaritzarentzat ezinbestekoa den lana egiten

dute, zentimo gutxi batzuen truke. Beraz, ekoizleek egiten duten lana azpimarratu nahiko nuke.

**Euskal Herriko sukaldaritzaren eragina presente al dago zure plateretan?**

Noski baietz. Euskal Herriko sukaldaritzatik jaso dudana baliorik garrantzitsuena, produktuarekiko dudana errespetua izan da. Horrez gain, arrainari ere garrantzia berezia ematen diot. Nire kartaren %80, esaterako, arrainez eta mariskoz osatuta dago. Ez dut prestatzen bisigua *Orio Estilora*, oraindik inoiz jan ez dudalako. Urriaren hasieran, Donostia Gastronomika jaialdian izan nintzen, nire sukaldaritzaren printzipioak erakusten, eta banuen Joxe Mari erretegiko bisigua jatera joateko asmoa, baina, azkenean, ez nuen denborarik izan. Bizitzan behin gutxienez egin behar dudana zerbait dela iruditzen zait. Hamabi urte nituenean, Paxitak izozki hura eman zidanetik barruan gordetzen dudana ametsa da.

Galderara itzuliz, uste dut janarekiko errespetua Orion jaso dudala, ulertzen baitut arrainari olio eta baratxuri pixka bat botatzea nahikoa dela sekulako platera izateko. Ez du ezer gehiago

behar. Jendeak, hala ere, maiz uste du Marokon espezia asko botatzen dizkiogula edozein plateri, baina gure sukaldaritzaren oso garbia da, erabiltzen ditugun espeziak piperrautsa, kuminoa eta kurkuma dira, ezer gutxi gehiago. Ez dugu kilo bat botatzen, pittin bat soilik, presentzia nabaritzeko neurrian.

**Nola definituko zenuke, esaldi bakarrean, zure sukaldaritzaren?**

Sukaldaritzaren garbia dela esango nuke, produktu marokoarrak oinarri hartu eta errespetu handiz prestatua, eta munduko maitasun guztiarekin egina.

**Zerbait esan nahiko zenieke Orio eta Aiako herritarrei?**

Eskerrak eman nahi dizkiet. Mezu ugari jasotzen ditut bertako herritarrek bidalita, eta denborarik ez dudanez, ezin izaten diet denei erantzun. Hala ere, denak irakurtzen ditut, eta benetan bihotzera iristen zaizkit. Esaera zaharrek diote nork bere lurraldean ezin duela profeta izan. Ni lurralde batetik bestera nabilenez ez dut lurralderik, baina beti izan dut eta beti izango dut argi, euskaldun-marokoarra naizela, oriotarra, eta titulu hori ez didala inork kenduko. ■■■



## GABON GAUEKO AFARI BEREZIA 2019

Otarrairekin krema txangurro kurruskariarekin

Ganbak aire zitriko eta plankton zukuarekin

Itsas kabra pastela jengibre eta kurkuma mahonesarekin

Gulaz beteriko legatza errege-sagarrez eginiko pil-pilarekin

Hezurgabeko zezen-isats zilindroa gaztaina parmentier-arekin

Banilla krema eta turroi hostopila fruitu lehor krokantearekin

Gure bodegako aukeraketa onena

**74 €** [ostatu hartzeko aukerarekin, pertsonako 164€-tik hasita]

# Egin zaitez KARKARA laguntzaile eta hartu parte gure hileroko zozketetan

## Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hileroko nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
- Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
- **KARKARA**laguntzailearen abantailez gozatu nahi dudalako.

**KARKARA**laguntzaile izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.



Hil honetako KARKARA laguntzaile zozketa:

Katxiña upategia jatetxearen eskutik bi lagunentzako otordua.

---

### PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik abenduaren 13ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAKo hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARA laguntzaile eta KARKARA laguntzaile berrientzat bakarrik.



# Alkandora berria jantzita



RIKARDO UZKUDUN

**H**onezkero ez dago sorpresa gordetzerik, bistan da, alkandora berria erosi diogu KARKARARI. Premia zuen gajoak, dena emana zuen aurrekoa, forma galduta. Eta zer hobeto, 30. urtebetetzeari bukaera emateko, sanikolasekin batera alkandora berria estreinatzea baino?

30 urte bete zituen sanpedrotan KARKARAK, eta, buelta batzuk eman ondoren, diseinua aldatzeko garaia heldu zaiola pentsatu genuen. Zer nolako diseinua, ordea? Honezkero ikusiko zenuten bezala, gorputza apenas aldatu zaiou. Atalak berberak dira, gutxi gorabehera, bakoitza bere lekuan: Gutunak, Herrian Galdezka, elkarrizketak, erreportajea, Akuilua Hartuta, Moila Bazterretik, Oroimenaren Kutxa, Ikasleak Idazle..... Diseinuan adituak direnengana jo dugu, eta inguruko aldizkarietan lankidetzan aritu gara. Eta, azkenean, alkandora *entallatua* eta koloretsua erostera atrebitu gara.

*Entallatua*, gorputzera egokitua, estutxoa izango da aukeran batzuentzat, txikia ikusiko dute hasieran, baina KARKARAREN gorputz lirain horrentzako egoki-egokia dela pentsatzen dugu.


Koloretsua ere bai. Urteetan zuri-beltzezko kamisetak erabili ditugu, halabarrez, merkeenak zirelako. Ez dugu ukatuko zuri-beltzak xarmarik ez duenik, KARKARAREN estiloa bilakatu da kasik; batik bat, KARKARAK izan ezik, inguruko aldizkari guztiek orain dela 10 bat urte koloretara jo zutenean. Azken urteetan, erdiko zatia eta azala koloretan eman ditugu. Zenbait atal, argazki galeria eta azala, koloretan erakutsi beharra zeuden. Sukaldeko errezetak Mahai Bueltan atalean argitaratu ematen hasi ginenean, lekua bilatu ezinik ibiltzen ginen erdiko zortzi orrietan kokatu nahian. Zerbait koloretan atera nahi bazen, erdiko orrialdeetara ekarri beharra zegoen. Horretaz gain, garaiak ere aldatu dira, modak agintzeaz aparte, txukundu bat ere merezi zuen KARKARAK, ez al zaitzue iruditzen?

Jakizue, gainera, KARKARAREN 0 zenbakia, 1987an argitaratu zena eta aldizkariaren ernamuina izan zena, formatu txikian plazaratu zela. Hura bezala, hau ez dugu idazteko makinaz idatziko, baina jatorrira bueltatzea bezala izango da, nolabait.


30 urte beteta, gazte izateari laga dio ofizialki KARKARAK, eta adinari dagokion moduan, alkandora berria jantzi diogu. Helduaro oparoa eta emankorra dauka aurretik! ■■■■

**ETA ZER HOBETO,  
30.URTEBETETZEARI  
BUKAERA EMATEKO,  
SANIKOLASEKIN  
BATERA ALKANDORA  
BERRIA ESTREINATZEA  
BAINO?**

**GINARRI PODOLOGIA ZENTROA**



Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-57 53 61  
oinarri@podologia-oinarri.com  
www.podologia-oinarri.com



**ORIA**  
hertz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-83 36 45

Oria Hertz Klinikak **ORTODONTZIA**  
zerbitzu berria jari du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela  
jakinda, hartu aurre etorkizunean sor  
daitezkeen arazoel.

**PAKO IMAZ**



pertsianak

**PERTSIANAK**  
aluminioa  
motorrak  
automatismoak  
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01  
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



**Orioko  
Herri  
Ikastola**

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8  
943-83 47 04  
Fax-a: 943-13 09 38  
orio@ikastola.eus  
www.oriokoikastola.eus

**SU  
KIA**

TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua  
Asteburuetakoa  
Oliaskoak eramateko  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Terraza ederra  
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1  
ORIO · 943-89 21 29



%100 etxean egina

**PIZZERIA  
KALETA**

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 49

**urbide**  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4 · Zarautz  
943-89 00 69  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es



**Portu**  
Erreteta - Jatetxea

Kazolitak, baserriko oilaskoa,  
parrillako errekiak, eguneko menua...


Santio Erreka auzoa, z/g · AIA  
943-89 44 34



**Zaragueta IPI**  
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43  
012137aa@hezkontza.net

**Sinergia**  
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO  
943-13 05 77 · 685 71 85 95  
sinergiafisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurturak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, amas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekerperazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, amas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

# Landa eremuko medikuntza, lanbidea ulertzeko beste modu bat

Berezia da Aiako osasun zerbitzua, Rosa Corral medikuak 30 urtetik gora daramatzalako herriko sendagile lanetan. Herritarrak gustura daude berarekin, baina kezkatuta ere bai, Corral ez dagoenetan zerbitzua "oso murrizta" delako, eta hura erretiratzen denean zer gertatuko den ez dakitelako.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

**A**iako osasun zerbitzuaren etorkizunarekin kezkatuta agertu dira azkenaldian zenbait herritar. Lehen mailako arreta eskaintzen duen Rosa Corral herriko medikuarekin "oso gustura" daude aiarrak, baina hura falta denean, oporrak hartzen dituenean, edo mintegiak nahiz beste mota bateko konpromiso profesionalengatik herrian ez dagoenean, zerbitzua "motz" geratzen dela uste dute askok. "Aian bi mila biztanle inguru bizi gara, eta osasun zerbitzua murrizta da. Medikua egunero egoten da, baina hura falta denean, ordezkoko medikuak oso denbora gutxi pasatzen du herrian. Gainera, pediatria astean behin etortzen da bi orduz, eta hark kontsulta pasatzen duenean, beste medikuak atera egin behar izaten du, osasun zentroan kontsulta bakarra dagoelako". Garai batean, haurdun zeuden emakumeei azterketa medikoa egitera emagina etortzen zela ere azaldu dute, baina azken urteetan, zerbitzua pixkanaka "murrizten" joan dela iruditzen zaie herritarrei.

Herriko farmazian ere antzeman dute herritarren haserrea. "Herriko medikuak oporrak hartzen dituenean, ordezkoak presaka etortzen dira, beren herrian ere lanez gainezka daudelako. Horrek, ezintasuna eragiten du aiarren artean, herriko medikua ez dagoenean zerbitzua okertu egiten dela ikusten dutelako. Zenbait garaitan gurera ere jotzen dute gomendio eske, ordezkoko medikurik ez dagoelako. Egoera hau murrizketen ondorioa da".

Bestetik, zerbitzuaren etorkizunaren inguruko zalantzak ere badituzte herritar batzuek. "Garrantzitsua da herritarren oinarritzko beharrak asetzeko zerbitzu eraginkorrak izatea. Oso ondo dago



Rosa Corral, Aiako medikua.

urtean zehar herria biziberritzeko ekintza mordoa egitea, baina aiarrak beste buruhauste batzuk ditugu, eta eguneroko zerbitzuetan arreta gehiago jarri beharko litzatekeela uste dut, herriko zerbitzuak pixkanaka txikitzen ari baitira. Lehen banketxeko bulegoa genuen herrian, baina orain gehienetan itxita egoten da, eta izapideak egiteko Oriora eta Zarautzera jaitsi behar izaten dugu. Gauza bera gertatzen da medikuarekin ere”, azaldu du emakume batek. “Jakin badakigu Rosa Corral herrian den bitartean aiarrak ondo artatuak izango garela, baina hura erretiratzenean zer gertatuko da? Ordezko medikua jarriko al digute? Rosak egiten duen bezala, baserriz baserri ibiliko al da, etxetik atera ezin dutenak artatzen?”.

Herriko osasun zerbitzuaren egoerarekin arduratuta, Aiako Udalera jo zuten hainbat aiarrek, eta gaia argitzeko lanean hasi zen udala. “Osakidetzako zuzendaritzarekin harremanetan jarri ginen herritarren keak azaltzeko, eta Aiako osasun zerbitzua bermatuta izango dela baieztatzen duen agiri idatzia bidali digute. Horrez gain, barkamena ere eskatu dute, ordezkapenen kudeaketak sortu dituen gorabeherengatik”, azaldu du Nekane Arrizabalaga Aiako alkateak. Horrela, herrian sortu diren zalantzak argitu nahi ditu alkateak. “Zerbitzua ona da, baina ez da perfektua. Hobetu beharreko hutsuneak ditu, beraz, erakundeen arteko hartu-emanarekin horiei irtenbidea bilatzen saiatuko gara, denon nahia baita aiarrak herriko zerbitzuekin gustura sentitzea eta herritarren ongizatea bermatuta egotea”.

#### **Landa medikua**

Landa eremuko osasun zerbitzuak murrizketei eta hainbat oztopori aurre egin behar izan dio azken urteetan, baina badu herri



handietako osasun zentroetan eskaintzen ez duten berezitasun garrantzitsu bat: gertutasuna. Rosa Corralek ondo ezagutzen ditu Aiako familiak eta horien beharrak. “Medikuntza ikasten hasi nintzenetik argi izan nuen landa eremuko medikuntzan lan egin nahi nuela. Ni ere Errioxako herri txiki batekoa naiz, eta nire gurasoek harreman estua izan dute beti herriko medikuarekin. Gertutasun horretatik ulertzen dut nik medikuntza, eta ez nuen nire pazienteak zenbaki hutsak izaterik nahi. Horregatik erabaki nuen herri txiki bateko medikua izatea”.



Aiako medikuari pazienteekin “harreman zuzena” izatea gustatzen zaio. “Gaur egun gurasoak diren asko jaio zirenetik ezagutzen ditut. Beste hainbeste, berriz, helduak zirenean ezagutu nituen, eta gaur egun adineko pertsonak dira. Aiako familia dinamikak ezagutzen ditut, eta oso inportantea da gaixotasun asko ulertzeko. Ratioek bultzatuta, osasun etxe handietan ahazten ari da alderdi hori, baina pazientearekin gertuko harremana izatea da familia medikuaren filosofia. Herri txiki batzuetan, zorionez, oraindik mantentzen dugu medikuntza ulertzeko modu integrala, baina Euskal Herrian oso gutxi geratzen gara. Izan ere, erretiroa hartzen duten medikuen ordezko sendagile gazteei ez zaie gustatzen horrela lan egitea”.

Corralek, esaterako, hilero bisitatzen ditu beren etxean edo baserrian arrazoi desberdinengatik etxetik atera ezin duten herritarrek. “Hori dela-eta, urgentzia gutxiago izaten ditugu, herritarrek badakitelako noiz joango garen bertara, eta itxaron egiten dute gu iritsi arte”. Horrez gain, pazienteak beren inguruan ikusten ditu, eta hortik balia garria den informazio mordo eskuratzen duela aitortu du. “Herritarren baliabide, bizimodu, lanbide, elikadura eta beste hainbat faktorek beren ongizatea baldintzatzen dute. Adibidez, herritar bat ondoezik senti daiteke, baina agian ez du botikarik behar: herrian antolatzen diren jardueretan parte hartuta eta jendearekin sozializatuta, barruan duen korapiloa aska dezake eta hobeto sentitu”. Azken batean, uste du, “arreta integrala” eskaintzea oso garrantzitsua dela, eta “herritarrek asko eskertzen dute gertutasuna”.

#### **Talde lana oinarrian**

Larrialdien aurrean azkar erantzuteko gaitasuna ere izaten da landa medikuaren beste ezaugarri bat. “Osasun zentro handietan mediku talde handiak izaten dituzte, eta larrialdi edo zalantzen aurrean beste profesionalak izaten dituzte alboan. Herri txikietan bakarrik egoten gara, horregatik, ezinbestekoa izaten da medikuak eta

Aiako herrigunean dago osasun zentroa.

**ROSA CORRALEK ONDO  
EZAGUTZEN DITU AIAKO  
FAMILIAK ETA HORIEN  
BEHARRAK**

**HILERO BISITATZEN  
DITU BEREN ETXEAN  
EDO BASERRIAN  
ARRAZOI  
DESBERDINENGATIK  
ETXETIK ATERA EZIN  
DUTEN HERRITARRAK**



Agirretxe, Corral eta Etxeberria bileran.

erizainak osatzen dugun taldetxoa. Arantxa Etxeberria da Aiako osasun zentroko erizaina, eta oso harreman ona dugu; ederki egiten dugu lan elkarrekin”. Bestetik, herriko gizarte zerbitzuetako teknikariarekin hartu-eman zuzena izatea ere funtsezkoa iruditzen zaio Corrali. “Alderdi sanitarioa eta soziala oso lotuta daude, batzuetan ez baita jakiten zein arlotan dagoen pertsona batek duen gaixotasunaren sorburua. Zorionez Aian, gizarte zerbitzuetako teknikari Maria Luisa Agirretxerekin taldean lan egiten dugu, eta dinamika

horrek oso emaitza onak ematen dituela uste dugu”. Horrez gain, Corralek hartu-eman zuzena du ospitaleko medikuekin ere, eta erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzenean edo zalantzaren bat sortzen zaionean, haiengana jotzen du gomendio eske.

Bestalde, Aiako medikuak uste du herri txikietako osasun etxeetan askoz denbora gutxiago galtzen dela gai administratiboetan eta burokrazian . “Argia hondatzen bazait ez dut eskaera formal bat egin beharrik, herriko brigadari deitzen diot eta segituan etortzen dira. Elurra egiten duenean, baserriren batera joan behar badut, eta kotxea hartzera ausartzen ez banaiz, brigadakoek eramaten naute. Udalaren partetik oso babestua sentitzen naiz, eta horregatik daramatzat hainbeste urte Aian lan egiten, talde lanik gabe eta herriko erakundearen babesik gabe ez litzatekeelako bideragarria izango hemen lan egitea”.

Herriko erakunde eta sailen arteko harremana “zuzena eta estua” da. “Gure lan eredia beste herrietara zabaldu ahalko litzatekeela uste dut, herriarentzat oso aberasgarria baita herritarren ongizatean parte hartzen duten eragileen artean koordinazioa izatea”.

### **Testuingurua aldatu da**

Duela 32 urte iritsi zen Rosa Corral Aiara, eta ez zituen herria eta hizkuntza ezagutzen, baina herritarren hizkuntza ohiturez ohartu zenean, “segituan” hasi zen euskara ikasten. “Adineko jende asko bizi zen orduan herrian, eta dispersioa ere handia zen, herritar asko baserrietan bizi baitziren. Gainera, ez zegoen internetik, baserri bakoitza non zegoen ikusteko”. Pixkanaka herria eta herritarrak ezagutzen joan zen, eta aitortu du “ahalegin kontzientea” egin zuela horretarako.

Gainera, lehen urteetan, 24 orduz lan egiten zuen lan Corralek, astelehenetik igandera, eta urtean hilabete libratzen zuen oporrak hartzeko. “Egunean bi orduz pasatzen nuen kontsulta herrian, eta etxez etxe lan egiten nuen. Beti guardian nengoen, eta kartelen bidez komunikatzen nintzen herritarrekin”. *Paseatzen edo kafea*

*hartzen ari naiz*, moduko kartelak jartzen zituen kontsultaren atean. “Hala ere, jendea oso azkarra da, eta segituan ikasi zituen nire ohiturak. Ezagutzen zuten nire egunerokoa, eta bazekiten non nengoen une bakoitzean. Horrez gain, Zarautzera erosketak egitera jaisten nintzenez, tramankulu erraldoi bat eraman behar izaten nuen nirekin, norbaitek larrialdi batengatik deitzen bazidan, erantzun ahal izateko. Hamarkada bat beranduago iritsi ziren lehen sakelako telefonoak”.

Herri txiki bateko medikuek gainditu behar dituzten oztopoen gainetik, Corral “oso gustura” dago Aian, eta azken 30 urteetan lekuz aldatzeko aukera izan badu ere, herrian geratzea erabaki du. “Aian jendea oso esker onekoa da. Gogoan dut nire seme-alabak txikiak zirenean, eta urgentzia baterako deitzen zidatenean, haurrak kotxean hartuta joaten nintzela baserrietara. Heldu orduko, nik ezer eskatu aurretik, beti familiakoren bat arduratzen zen nire haurrekin egoteaz lanean nintzen bitartean, eta ganadua edo baratzea ikustera eramaten zituzten entretenitzeko. Gaur egungo mediku gazte askorentzat egoera horiek sinestezinak dira, baina nire seme-alabek eta nik garai zaharretako oroitzapen oso politak ditugu”. ■■■



Mila Fernandez eta Julen Oteiza, herriko farmazeutikoak.



**URTEZAHARRETAKO  
AFARI KOTILIOIA  
2019-2020**

  
**VILLA ANTILLA**  
HOTEL & THALASSO

**140€**  
Ostatuarekin, pertsonako 229 eurotik hasita

Onqietorri koktela

Abakando eta mango entsalada, barazki kimuekin eta iberiko eta sagar karamelizatuz egindako ozpin-olioarekin

Lutxarbi zuriz eta baratxuriz osatutako parmentier-a bieira erreekin

Aingira bikotea pikillo aparrarekin eta Picual oliba olioaren kabiarrarekin

Zapoa labean donostiar erara, txirlekin

Esneko arkume trontzoa bere zukuari patata aparrarekin, aza berdearekin eta tipulin konfitatuarekin

Anana eta koko krema sagar brioche-a kanela eta ezti aromarekin

Mahatsa, cava eta Gabonetako gozoak

Gure bodegako aukeraketa onena

Kotilioia Djarekin eta biqarren afaria

HOTEL & THALASSO VILLA ANTILLA · 943 892 102 · reservas@villaantilla.com · HONDARTZA BIDEA 1, ORIO





# Hiztegia

**N**ire umezaroko postalak lapurtu dizkidate udazken honetan.

Nire errepublikaren mugariak bi ziren txikitari. Bata zubia, bestea ikastola. Eremua Txaganeko etxeraino zabaltzen zen asteburuetan, amona Krispinaren bisitan joaten ginenean. Aste tarteko orduak, hala ere, errepublika barruan pasatzen nituen, inguru horretako txoko eta bizidun guztiak ondo kontrolatzeraino. Eta horrela sortu nuen moila bazterren nire hiztegia.

Adibidez, zubiaren alboan bazen janari denda bat. Trinik, Axunek eta Marijok saldu zizkiguten erdian zuloa zuten gailetak. Gozoetan gozoenak. Baina ume batentzat askoz ere majikoagoa da zakur bat.

*Axkarren denda* izan zen gurean beti txorixotarren negozioa.

Egunean gutxienez lau aldiz pasatzen nintzen gure kofradia zaharrek arkupeetatik. Ikastolara bidean bitan, etxera bidean beste bitan. Zenbat marrua, orroa eta algara entzungo ote zuten hango pertxalek. Zenbat ordu neguan, zenbat ordu udan haren inguruan. Hura zen Pitxuren bizitoki, milioika katakumez erditu zen katu sexualki hiperaktiboa. Hura zen barometroaren alboan

## "AXKARREN" DENDA IZAN ZEN GUREAN BETI TXORIXOTARREN NEGOZIOA

*kofradiko muñekitua* gordetzen zuen aterpea. San Nikolasen irudiari izen hori eman genion gelako batek izandako ateraldiaren ondoren.

Herriko plaza zegoen bi muturren erdian, nire jolasleku zentrala. Galtzada-harri grisez osatutako oktagonoez sortzen zituzten harrizintzarrezko pasiloak. Kioskoaren inguruan zeuden saltoka pasatzen saiatzen ginen bankuak. Teilatu azpi horretan babestu baino gaixotu gehiagotan egin baginen ere, gozatu ederrak hartu genituen bertan. Halako batean, gainera, surf egiteko aingura bat ere jarri ziguten. Hori bai irrizatzeko abilidada baldosa zurietan.

Erreskadan lapurtu dizkigute kofradia eta plaza. Zenbat

## HAUXE BAI JENEROA!



## NIRE HONETAN



**INTZA UNANUE  
ARRUBARRENA**

**Bizi**

**D**enbora aurrera doa. Geroz eta azkarrago, eskuetatik alde egin nahiko baligu bezala, joaten utziko bagenio bezala.

Jaio eta kontziente garenetik zeruaren mailan jartzen ditugu bizitzan zehar lortu beharreko helburuak. Handiegiak izaten dira, akaso. Aldi berean, bidean eskuratzen ditugun lorpen txiki horiei erreparatzea ahazten zaigu.

Leku zaharretara itzultzen gara, izan zen hura oroitzuz eta aurrean orain duguna begi bistan, zirriborrotsu bilakatu. Galdutakoari begiratzen diogu, goibel, irabazitakoari heldu beharrean. Eta “zoriontasuna” eskatzen dugu, baina guk berari irribarre egiten ez badiogu, berak ez digu bueltan ezer emango.

Norbanakoaren askatasunak duen balioaz oroitu beharko genuke halakoetan: gertukoekin elkarbanatzen dugun maitasunaz, laguntasunaz edo lagunduak izan eta laguntza emateaz. Kantu bakar batekin mundu paralelo batera iristez. Ostiraletan jan-edanaren bueltan bildu eta norbere bizipenak kontatzeko eta besteenaz goatzeko tartea izateaz. Herriko kaleetatik joan eta ezagunen agur irribarretsu bat jasotzeaz. Besterik gabe bizitzeaz arduratu beharko genuke. Eta denbora, joan dadila aurrera, baina gure eskutik. ■■■



Txorixotarren denda zena. AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

argazki ote dago oriotarron mugikorretan kioskoaren eskeleto eta kofradiaren errautsekin.

Hiztegia aberastu egingo da, baina tarte txiki batean triste sentitu naiz. Eta ez naiz bakarra, seguruena. ■■■



## PUBLIZITATEA



**LASTER  
DESATASCOS**

desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascos.com  
24 orduz 688 886 536 (Larrialdiak)

· Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa  
· Uholdeetako uren hustuketa  
· Teilatu hodien garbiketa  
· Saneamendu sareen ikuskapena  
· ...

Abaromendi 3 · 20810 ORIO  
Sagar Erreka 21-A · 20590 SORALUZE  
943-75 14 31 (Bulegoa)



**ELEKTRIZITATEA**

Arrantzale kalea, 31 · ORIO  
943-83 17 74 · 600 85 67 28 (Ander)  
anderexpoelektrizitatea@gmail.com

**ANORGA TXIKI, S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

Oria etorbidea, 4  
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com  
www.cristaleriaanorgatxiki.com  
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiuak



**Gabon**  
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7  
943-83 06 09



**Sagasti  
LEIHOAK**

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitza-tezko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com



**GARMENDIA**

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48  
Ibai Ondo, 1 · ORIO  
info@egarmendia.com



**Seguros  
Bilbao**

Santi Barranco  
Oriko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com  
943-11 16 00 · 688 71 48 69



**K.U.K.U.A.R.R.I.**  
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08  
Zigordia, 52 behe C · ZARAUTZ  
kukuuarri@kukuuarri.com



**TXUKUN  
LORAZANTZA, S.L.**

660 33 27 56 · 679 42 88 51  
txukunlorazantza@hotmail.com

Lorezaintza  
Mendiko lanak  
Indusketak  
Itxiturak

...



**ZINKU  
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi  
**667 74 02 79**



**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36





ZARAGUETA HERRI ESKOLA

# Bizitza bertso artean

ÍÑAKI GURRUTXAGA BERTSOLARIA ETA IRAKASLEA

## Noiz eta zergatik hasi zinen bertsoan?

Bertsotan noiz hasi nintzen ez dakit, baina Bertso Eskolan bai: 5. mailan nengoela hasi nintzen. Eta nire kuadrillako denak hasi zirelako hasi nintzen.

## Noiz hasi zinen ikastetxeetan lanean?

22 urterekin hasi nintzen, unibertsitateko ikasketak bukatu nituen urte berean. Eta Zaraguetan jada urte asko daramatzat lanean.

## Beste lanbiderik ba al duzu?

Ez, nire lanbidea ikastetxez ikastetxe bertsoak irakasten ibiltzea da.

## Gustukoa al duzu lana?

Bai, oso gustuko dut, baina ez zait beti gustatzen. Ez dut uste inor dagoenik bere lana eguneko 24 orduz gustuko duenik.

## Zenbat urte daramatzazu bertsoan plazaz plaza?

Jendaurrean aurrenekoz bertso eskolan hasitako urte berean kantatu nuen. Baina plazaz plaza, 16 urterekin hasi nintzen.

**SENTSAZIOAK  
MONTAÑA RUSA  
BATEAN IBILTZEAREN  
ANTZEKOAK DIRA,  
GORABEHERATSUAK  
OSO**

## Noiz pentsatzen duzu bertsolari izateari uztea?

Ez dakit uzterik dagoen.

## Zer sentitzen duzu bertsoan?

Emozio asko sentitzen dira. Hasieran beldurra, abestu behar duzunaren aurrean, eta abesten zaudenean, poztasuna ondo ateratzen denean, haserrea horren ondo ateratzen ez denean... Sentsazioak *montaña rusa* batean ibiltzearen antzekoak dira, gorabeheratsuak oso.

## Txapelketaren bat irabazi al duzu noizbait?

Lehiaketak bai, baina txapelketak ezagutzen diren bezala, probintzi mailakoa, 18 urte bitartekoa. Eta helduen txapelketarik ez, baina finalera ailegatu bai.

## Zein da zure bertsolaririk gustukoena?

Adibidez, lehengo bertsolariak oso gustuko ditut: Txirrita, Otaño eta Peio Errota.

## Bukatzeko, nork irabaziko du Gipuzkoako bertsolari txapelketa?

Beñat Gaztelumendi faborito nagusia dela uste dut. ■




BLAS ESNAL

## Komertzio handiak?

**A**spalditik, jende askoren ahotan dabil idatzi honetan azaltzen dena, Hondarribian egitekoak diren Zaldunborda merkatalgunearen gaia. Zer ote da hobe, sekulako komertzio edo supermerkatu handi bat, edo gertukoa dugun denda txikia? Badira hainbat iritzi eta eztabaida gai honen inguruan; hemen nirea emango dut.

Gertutasuna galtzen ari den eta oso garrantzitsua iruditzen zaidan zerbait da. Hori denda txikietan badugu; komertzio handietan, aldiz, ez dago erlaziorik eroslearen eta saltzailearen artean. Gainera, horrelako saltoki erraldoiek inpaktu handia izaten dute ingurunean, paisaia moldatuz eta airea kutsatuz. Hori gutxi balitz, herriko dendetan dauden produktuen kalitatea hobe izan ohi da eta, gure osasunari begira, kalteak izan ditzake kalitate txarreko janaria kontsumitzeak.

Badira komertzio txikien alde egoteko arrazoi gehiago, komertzio handietan izaten diren lan-baldintza kaskarrak, besteak beste. Baina uste dut nahiko argi geratu dela nire iritzia zein den eta zergatik. ■



# KAÏOA



kaioa\_denda



www.kaioa.es

# Elikadura kontzientea etxean hasten da



**TESTUA:** MIREN ALBENIZ

Estatu mailan baino egoera hobea dugun arren, Euskal herriko haurren gizentasun tasa geroz eta altuagoa da. Zer egiten dugu gaizki?

Presaka bizi gara, eta gurasoon denbora faltak haurren elikadura eragina du. Haurrek txikitatik jateko ohiturak har ditzaten, gurasook eredu izan behar dugu, eta denbora pasa behar dugu asteko menuak planifikatzen, janaria erosten, sukaldatzen... Jatorduak aurreikusi egin behar dira, inprobisatu beharrean. Kontzientzia kontua da, azken finean.

Erosketa eredu ere asko aldatu da, eta elikagai prozesatuak egunero kontsumitzen dira etxe askotan. Horiek balio nutritibo gutxi, eta azukre eta gantz asko izaten dute, eta ondorioz, haurrek hartu beharko luketena baino 3-4 aldiz azukre gehiago jan ohi dute. Publizitateak eta

marketinak ere zeresana izaten du horretan. Iragarkiek gehienetan produktuen alderdi positiboa azpimarratzen dute, kaltegarriak diren osagaiak ezkutatu. Hala, haur txikien lehenengo papillak, jogurtak edo gailetak ezinbestekoak eta osasungarriak balira bezala saltzen dizkigute, eta nahi gabe, txikitatik azukre mordoak ematen diegu. Koxkorragoak direnean ere, egunero kontsumitzen dituzte opil industrialak, zuku eta batido komertzialak, gailetak... betiko fruta eta ogitartekoa baztertuz.

Gainera, gaur egun ariketa fisiko gutxi egiten dute haurrek. Erosotasunez josita bizi gara, eta pantailen aurrean ordu asko pasatzen dituzte. Horregatik, oso garrantzitsua da jolas

## FAKTORE EMOZIONALA ETA HAURREN ELIKADURA ELKARRI LOTUTA DAUDE

aktiboa bultzatzea umeen artean, eskoletan nahiz etxean. Gurasook ere badugu zer hobetua alderdi horretan, pantaila bat eskaintzea baino osasuntsuagoa baita seme-alabei gure denbora eskaintzea.

Bestalde, aintzakotan hartzen ez badugu ere, faktore emozionala eta haurren elikadura elkarriz lotuta daude. Estresa, antsietatea, presioa edo asperraldia kudeatzen ez dakiten haurrek ohitura txarrak hartzeko joera handiagoa izaten dute. Garrantzitsua da helduok haurren bidelagun izatea sentimendu horiek bideratzen erakusteko, eta mahai bueltan familiak pasatzen duen denbora aproposa da horretarako.

Piramide nutrizionala edo elikagaien gurpila tresna garrantzitsuak dira gauzak ondo egiten hasi nahi badugu. Baina kontzientzia da landu behar duguna. Hori lortzen badugu, fresko gehiago eta enbasatu gutxiago erosiko dugu, sukaldean denbora gehiago pasako dugu, mahaian elkarrekin eseriko gara, kirol gehiago egingo dugu haurrekin, egarria dutenean ura emango diegu, eta erosketak egiterakoan informazio nutrizionala irakurri eta kritikoagoak izango gara. Hori da bidea! ■

**BPXport**

**GREEN FRIDAY**

**BAZKIDEAK:** ekarri lagun bat eta eraman entrenamendu pertsonalizatu bat opari.

**EZ BAZKIDEAK:** eman alta eta matrikula dohain.

\*Baldintzak kiroldegiko harreran.



# Azken luzea



TESTUA: JABIER ZABALETA

Kike Amonarriz euskaltzale ezaguna aspaldian ari da esaten: euskara bidegurutze batean dago eta datozen urteotan egiten dugunak erabakiko du hizkuntzaren paradoera: edo espazioak irabazi eta normalizatzeko bidea hartuko du, edo, Irlandan gaelikoa bezala, eskolan ikasi bai baina gero apenas inork erabiltzen ez duen hizkuntza bihurtuko da.

Jon Sarasua pentsalariak, berriz, bidegurutzearena baino metafora landuagoa erabilita, irudi honekin azaldu berri du euskaltzaleok bizi dugun ataka: «Arantzazutik abiatu ginen, Aizkorri puntara iristea amets, eta igoera ederra egin dugu, baina orain Urbiako lainopean gaude, gora segitzeko zer bide hartu ez dakigula».

Une garrantzitsua da euskararentzat, bai, eta, gure mapa-izkina honetan begia jarrita, mezu optimista eman nahi dut, baikor erreparatzen baitiot aurrean dugun bideari.

Oriotarrok ahalegin handia egin dugu azken hamarkadetan euskararen egoera hobetzeko herrian, eta aurrerapen nabarmenak egin ditugu arlo desberdinetan: hezkuntzan, administrazioan, elkarteen egunerokoa, euskararen

irakaskuntzan, tokiko komunikabideetan...

Hutsuneak eta ajeak ere badira, ordea, eta komeni da horiek ere ez bistatik galtzea: salbuespenak salbuespen, ez dugu oraindik lortu lan-munduak euskara aintzakotzat hartzerik, gure sukaldeetan euskara gutxiago hitz egiten da, darabilgun hizkuntzaren kalitatearekiko kezka ere badago...

Baina aurrera goaz. Udaleko Euskara Zerbitzuak aurten egindako neurketaren arabera, euskararen erabilera igo egin da Orion eta %72an dago. Igoerarik handiena, gainera, 25-64 urte arteko adin-taldean gertatu da eta joan den urteko Euskaraldiak izango du noski zerikusia igoera horretan. Oriotarrok harrigarri ondo erantzun genion Euskaraldiaren erronkari: ia 1.500 oriotarrek parte hartu zuten eta, hartara, euskara gehiago erabiltzeko konpromisoa esplizitatu zuten. Lelo gisa erabili izan dugu lehen ere, baina orain jakin badakigu egia dela: oriotarrok euskaraz bizi nahi dugu.

## EUSKARAREN ERABILERA IGO EGIN DA ORION ETA %72AN DAGO

Datorren urteko Euskaraldian beste erronka bat planteatuko dugu eta herriko erakunde, elkarte, denda, taberna eta enpresak inplikatu ditugu euskararen erabilera handitzeko ahalegin kolektibo honetan. Oraindik euskararen gurdira igo ez direnei bultzada bat emateko baliatuko dugu.

Gaur egun, egoera ezin hobean gaude Orion salto kuantitatibo eta kualitatibo handia egiteko euskararen erabilera. Faktore asko ditugu alde: ezagutza-tasa altuak, batez ere gazteenen artean; herritarren gogoak; sektore dinamikoenen inplikazioa (gazteak, feminismoa, kultur sorkuntza...); adostasun politikoa; gaitasun teknikoa... Ez da berez etorriko, jakina; eta ahalegina eskatuko du, orain arte bezala: bitarteko eta tresna berriak sortu, dauzkagunak sendotu, jendea prestatu...

Ni ere metaforen aldapa beheran abiatuta, lan erdiak eginda eta ziaboga hartuta irudikatzen dut euskararen traineru horia Kontxako badiari begira. Ikusi dugu banderaraino eramango gaituen olatuaren tontorra; horixe hartuko dugu. Horrekin barrura! Ez da erraza izango, baina, daukagun neska-mutil kuadrillarekin, azken luze hau ere ondo egingo dugun zalantzarik ez dut. ■■■



## Aho batez onartu dituzte Aiako udal aurrekontuak

*Aiako Udalak 376.000 euro bideratuko ditu inbertsioetara 2020an, eta atal horretako partida nagusia herriko irisgarritasuna hobetzeko erabiliko du udalak.*

Azaroaren 13an, Aiako Udalbatzak 2020ko udal aurrekontua onartu zuen, aho batez. Udalak 2.533.613 euroko diru sarrerak aurreikusi ditu 2020rako, eta horietatik 376.000 euro bideratuko ditu inbertsioetara. Diru poltsa horretako partida nagusia, 225.000 euro, herriko irisgarritasuna hobetzeko erabiliko dute, eta udalbatzarrean jakinarazi zuten, besteak beste, hurrengo lanak egin nahi dituztela 2020an: herriguneko aparkalekua konpondu; Armendigainen oinezkoentzat bidea egokitu; eta Andatza auzoan lan batzuk egin.

Horrez gain, auzoetan inbertsioak egiteko 36.000 euroko partida aurreikusi du Aiako Udalak, eta beste 70.000



Aiako azaroko udalbatzarra. A.L.S.

euroko poltsa baserri bideak konpontzeko.

Azkenik, beste urteekin alderatuta, turismo ekintzetarako partida handitzea erabaki du udalak. Nekane Arrizabalaga alkateak azaldu duenez, “urtean zehar herrian ekintza mordoia egiten ditugu, eta orain arte gordetzen genuen 15.000 euroko partida motz geratzen zitzaigun. Horregatik, 2020an 30.000 euroko partida izango dugu arlo horretarako”.

Bestalde, udalak herriko elkarteei eta eragileei dirulaguntzak ematen dizkie urtero, eta ohiko laguntzez gain, 2020an Lur-Alkartasuna Kooperatibari 30.000 euro

ematea erabaki du erakundeak. “Herrian dugun zerbitzu bakarra da, eta udalak lagundu egin behar diola uste dugu”.

Aiako Udaleko kontu hartzaileak azpimarratu zuenez, udal aurrekontuak, “kontserbadoreak” izaten dira: “Ez da gastatzen duena baino gehiago, zor propiorik ez du”.

### Igerilekua berritzea

Igerilekua berritzeko lanak ahalbidetzeko oinarriak ere ahoz batez onartu zituzten. Horien arabera, lehiaketa publikoa irabazten duen enpresak lau hilabeteko epea izango du obrak egiteko, eta aurrekontua 615.000 eurokoa izango da, BEZa barne. «Esleipen prozeduran aspektu teknikoa alderdi ekonomikoa bezainbeste hartuko dugu kontuan. Izan ere, arkitektoak azpimarratu du ur-jokoak oso sensibleak direla eta alderdi teknikoa oso garrantzitsua dela horien mantenu egokia bermatzeko», esan zuten agintariek.

## Orioko odol-emaileak omendu dituzte

Oria Beheko odol-emaileen festa egin zuten azaroaren hasieran, eta ekitaldian Orioko hainbat odol-emaile omendu zituzten. Itziar Alberdi Arostegik, esaterako, oroigarria jaso zuen, odola 80 aldiz emateagatik. Horrez gain, Valentin Fernandez Lastra eta Jose Luis Huegun Arriolak egin-dako ahalegina ere aitortu zuten,

50 aldiz eman baitute odola bi gizasemeek. Bestalde, aipamena jaso zuten Aimar Galarragak, Nekane Irastorzak eta Rakel Leundak, horiek 25 aldiz eman baitute odola.

Kristina Atorrasagastik 47 daramatza Orioko odol emaileen ordezkari lanetan, eta bera arduratzen da talde medikua etortzen denerako dena prest izateaz. Orion lau odol-emate egiten dituzte urtean, hiru hilabetetik behin, eta Atorrasagastik gogorarazi nahi du



hurrengoa abenduaren 2an egingo dutela. “Oriotarrak ongetorriak izango dira”.

## Lau konpromiso hartuta, indarkeria matxistaren aurkako aldarria kaleratu dute ikasle eta irakasleek

*"Tratu ona guztiona" lelopean, "tratu onak eta indarkeriaren prebentzioa" eskatu dituzte, eta bide horri heltzeko, hainbat konpromiso hartu dituzte.*

Azaroaren 25ean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna izan zen, eta hainbat aldarrikapen egin zituzten Orion. Hala, goizean Orioko kultur etxearen aurrean bildu ziren Zaraguetako, Orioko Ikastolako eta Zingirako ikasle zein irakasleak, *Tratu ona guztiona* izenpean. "Egun hau baliatu nahi dugu, gaia plazara ateratzeko eta tratu onen aldarria egiteko, gure herrian ere badugu-eta horren premia", adierazi zuten kultur etxeko bakoititik. "Gure herrietan, baita gure ikastetxeetan ere, tratu txarra ematen diogu, gehiegitan, aldamenekoari [...] Neska-mutilok erasoak jasaten ditugu eta, askotan, oso larriak dira horrek sortzen dituen ondorioak".

"Tratu ona eta indarkeriaren prebentzioa" proposatu zituzten horren aurrean. "Guk, gazteok, indarkeriarik gabeko bizitzak nahi ditugu, eta elkarrenganako tratu onean hazi eta hezi nahi dugu; eskolan, etxean eta kalean", adierazi zuten hainbat ikasleek. Horretarako, "pertsona guztiak eskubide eta betebeharrak berberak" dituztela nabarmendu zuten, "gizarte osoaren lana" delako "legitimitatea kentzea tratu txarrei, eta babesa agertzea jasaten dutenei". "Indarkeria



Goizean, ikastetxeetako haurrak kalera atera ziren, indarkeria matxistaren aurka. D.A.L.

matxista eta beste indarkeria mota guztiak baztertzeko ditugu, eta gure gertutasuna adierazten diegu jasaten dituzten guztiei", gehitu zuten.

"Gure ikastetxeetan lan handia egin dezakegu gure arteko harremanak tratu onekoak, goxoak eta errespetuzkoak izateko eta berdintasuna sustatzeko, aurreiritzirik eta estereotipo sexistarik gabe", esan zuten ikasleek. Bide horri heltzeko, lau konpromiso hartu zituzten hiru ikastetxeetako kideek eta Orioko Udalak. Hain zuzen, honakoak dira konpromiso horiek:

1. "Jokabide bortitz edo oldarkor guztiak errefusatuko ditugu (jazarpenak, burlak, bazterketak...) eta, gure inguruan horrelako egoera bat sumatzen dugunean, salatu egingo dugu. Ez gara isilduko, isiltasunak konplize egiten gaitu-eta.
2. Gure arteko gatazkak elkarrekin hitz eginaz konponduko ditugu, jarrera baketsu eta tolerantarekin.

3. Baliabideak jarriko ditugu ikastetxeetan tratu onak sustatzeko eta Hezkuntzako agintariari eskatuko diegu gaia berariaz lantzea hezkuntza-programetan.
4. Aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetuan oinarrituko dugu gure heziketa-jarduerak, helburu garbi honekin: jendarte zuzen, aske eta parekide bat eraikitzen laguntzea".

### Berdintasuna egunero


Arratsaldean, *Botere harremanak hezkuntzan* hitzaldia eskaini zuen Amelia Barquinek, Salatxo aretoan, eta ondoren, elkarretaratzea izan zen Orioko kale nagusian. Jende asko bildu zen emakumeen aurkako indarkeria salatzen eta gaitzesteko. ■■■■

## GEHIAGO

### Argazkiak eta bideoa:


karkara.eus webgunean.

**Arrotzak** Ibaietan eta erreketan aurkitu beharko ez genituzkeen elementu gehiegi dago paisaia honetan (gomazko ahatez gainera, gutxienez 16). Ikusten al dituzu?



## Irudi engainariak

Hamahiru zati hauetatik zortzi goiko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



**Pareak bai!** Hemengo elementu gehienak bikoiztuta daude. Batek, ordea, ez du parearik, eta beste bat hiru aldiz ageri da. Zein da bakana eta zein hirukoiztua?







# Tatuajea

Maripurtzili ikaragarri gustatzen zaizkio tatuajeak. Hona hemen bere besoa. Eginiezazkiozu tatuajetxo batzuk.


**Mezua** Iruditxo bakoitza dagokion hizkiaz ordeztu eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Hona hemen Maripurtzilen hatz erakuslea. Marraz ezazu zerbait, bere hatz puntan orekan, eta izan dadila ikusgarria, sekulako trebezia baitauzka.



# Itzala

Ikusten duzunez, Peloziri eskolako lanak egiten ari da eta ez dago pozik. Baina hori alde batera utzita, zein ote da bere itzal zuzena?



# Bota dadoa!

Zortzi dado hauek tranpati samarrak dira. Lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturaturako zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# AGENDA

## ORIO

### HITZORDUAK

Azaroaren 29an, ostiralarekin, erabilitako jostailuen bilketa, Herri natur taldeak antolatuta.  
*Zaragüeta eskolan, 16:00etan.*  
*Ikastolan, 16:30ean.*

Asteazkenero, bingoa Zaharren Babeslekuak antolatuta.  
*Kultur etxean, 16:30ean.*

Abenduaren 3an, Euskaraz Gazte lehiaketaren sari banaketa.  
*Kultur etxean, 19:00etan.*

### MUSIKA

Abenduaren 2an, kantaldia. Orioko AEK-ak antolatuta.  
*Ikastola aurreko zabalgunean, 19:00etan.*

Abenduaren 28an, larunbatekin, Bertasio Gaua.  
*Etxeluze Gaztetxean, 22:00etan.*



### MUSIKA

Abenduaren 28an, larunbatekin, Benito Lertxundiren kontzertua.  
*Karela kiroldegian, 22:00etan.*

### EMANALDIA

Abenduaren 20an, Herribil emanaldia, Harribili dantza taldeak antolatuta.  
*Karela kiroldegian, 22:00etan.*

### AZOKA

Abenduaren 3an. Euskarazko liburu truke azoka.  
*Kultur etxe aurrean, 17:15etik 18:15era.*



### JAIAK

Abenduaren 5tik 8ra, San Nikolas jaiak (ikus gehigarria).


## AIA

### JAIAK

Igandero, erromeria.  
*Andatza auzoan, 18:30etik 21:30era.*

### EKITALDIA

Abenduaren 13an, Arnasa Gara ekitaldia.  
*Aiako kultur etxean, 19:00etan.*



## Zarautz

Hileta Zerbitzuak


Beilatokia  
Lekualdatzeak  
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35, ZARAUTZ

## 943-89 49 37

zarautz@harrespil.net

harrespil@harrespil.net



## Harrespil

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

Hilerrien kudeaketa  
Aldioroko lanak  
Harrilanak

## IRAGARKI SAILKATUAK

### GALDUTAKOAK

Argazki kamera digitala galdu dut. Kamera poltsa gris eta zuri baten barruan zegoen. Modeloa Sony Cyber-shot DSC-RX100M3, beltza. Serie zenbakia S01-30838664-l. Oso argazki garrantzitsuak ditu. andreas.schwarz@gmx.bix. Tel.: 688 85 96 82

### ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

### LAN BILA

Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tel.: 674 12 32 93.

Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tel.: 638 73 05 44.

Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoen zaintza, garbiketara lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentzietan. Tel.: 661 13 32 95.

Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketara egiteko eta klase partikularak emateko prest. Lehen hezkuntza graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tel.: 636 31 22 31.

Neska lan bila. Barnezaintzailea, garbiketara lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tel.: 632 58 23 65.

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehalarekin hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketara egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com). Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabil etxe garbiketara eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehalarekin hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

### LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabiltza pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

Urdaira sagardotegin txotx sasoiaren lanerako jendea behar dugu. Urtarrilaren 11n hasi eta maiatzaren 10era izango litzateke.

### ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 661 33 11 13.

Emakume arduratsua naiz eta etxea alokatu nahiko nuke. Iraupen luzeko alokairu bila nabil. Tel.: 676 44 13 27 edo 676 44 13 27.

### SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguria ordaindua du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

### BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kobxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugeseko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

## ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	07:13 eta 19:42	00:54 eta 13:27	☉
2	08:00 eta 20:24	01:39 eta 14:18	☉
3	08:54 eta 21:37	02:31 eta 15:16	☉
4	10:00 eta 22:50	03:32 eta 16:22	☉
5	11:13	04:43 eta 17:30	☉
6	01:01 eta 12:19	05:53 eta 18:31	☉
7	00:58 eta 13:14	06:52 eta 19:21	☉
8	01:45 eta 13:59	07:41 eta 20:04	☉
9	02:25 eta 14:39	08:23 eta 20:42	☉
10	03:01 eta 15:17	09:02 eta 21:19	☉
11	03:36 eta 15:53	09:39 eta 21:56	☉
12	04:11 eta 16:30	10:17 eta 22:33	☉
13	04:48 eta 17:09	10:56 eta 23:11	☉
14	05:26 eta 17:50	11:38 eta 23:52	☉
15	06:08 eta 18:34	12:22	☉
16	06:53 eta 19:23	00:37 eta 13:10	☉
17	07:44 eta 20:20	01:26 eta 14:04	☉
18	08:43 eta 21:25	02:22 eta 15:06	☉
19	09:52 eta 22:38	03:26 eta 16:14	☉
20	11:07 eta 23:53	04:38 eta 17:26	☉
21	12:20	05:51 eta 18:33	☉
22	01:00 eta 13:25	06:59 eta 19:33	☉
23	01:58 eta 14:22	07:58 eta 20:25	☉
24	02:48 eta 15:12	08:50 eta 21:12	☉
25	03:34 eta 15:57	09:38 eta 21:55	☉
26	04:16 eta 16:40	10:22 eta 22:36	☉
27	04:56 eta 17:20	11:03 eta 23:15	☉
28	05:35 eta 17:58	11:44 eta 23:54	☉
29	06:13 eta 18:37	12:24	☉
30	06:52 eta 19:16	00:33 eta 13:04	☉
31	07:31 eta 19:58	01:13 eta 13:46	☉

## FARMAZIAK-ABENDUA

### ORIO

4 eta 16tik 20ra. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 36

### ZARAUTZ

3. eta 9.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
24 eta 25.	ESPARZA: Santuitturi plaza, 5-6 / 943-50 47 83
10, 14 eta 15.	GALLO: Zigordia kalea, 17 / 943-13 40 19
2, 21, 22 eta 27.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
13 eta 26.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
6tik 8ra.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
28 eta 29.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
5, 11, 23 eta 31.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
1, 12 eta 30.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Ubegun industria gunea, 4  
AIA-ORIO

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)  
Fax-a: 943-89 05 62  
[alustiza@autocaresalustiza.com](mailto:alustiza@autocaresalustiza.com)

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.



## Puntua jarrita

**Ainara Manterola**  
(Doinua: Lizargate)

**1**

**Orioko jendea sasoian al dago?**

Herri mugitua da hortaz ziur nago. Ortzaikako semea hi bai hala hago, hobetzeko inberdek juerga gutxiago.

**2**

Kirola osasuna dela badakigu,

sedentarismoren miñaren testigu. Ipurdia moitzea ondo datorkigu, bizi kalitatea hobetzen baitigu.

**3**

Saioan egotea zer da zuentzako? Extremok ez dira onenak netzako. Kirola egin zazu osasunerako, gaintrenamendua ez da guretzako.

**4**

Emakume izanda kirolan mundutik, herrin sasoya badeu etzazue in dudik. Ahalduntzen gaituen modu bat delarik, jarraitu animatu neska kirolarik.

**Hurrengo bertsolaria:**

Maria Azkue.

**Puntua:**

Herriko neska gazteei kirola bultzatzen

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Ainara Manterolari jarri dio puntua Gorka Etxeberriak: "Orioko jendea sasoian al dago?". Hurrengoari ere jarri dio puntua.

# EMAKUMEA KIROLARI!



OSASUNA  
BIZI KALITATEA  
SASOIA

**BERDINTASUNA**

SURFA  
ESKU PILOTA  
ESKUBALOI  
SASKIBALOI  
ARRAUNA  
SHERRI  
CROSSFIT  
KIROLAK  
IGERIKETA  
BOL  
KORRIKA  
PATA  
YOGA  
TXIRINDUA  
RITZA



# BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

barne  
diseinua

etxea      sukaldea  
bainugela      ...  
leihoak      etxeko altzariak

eraberritzekotan?



## Bisita gaitzazu



Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ



943-13 50 16

[www.biyona.net](http://www.biyona.net)